



HIRIGINTZA

## Fytasa, Elorrioko Udalaren esku

Udalak nabarmendu du operazioak "aukera berriak" sortzen dituela eta "etxebizitza publikoaren parkea handitzeko" bidea zabaltzen duela / 10



ELKARRIZKETA

## "Beste era batera bizitzeko aukerak daudela erakutsi nahi nuen eleberrian"

Danele Sarriugarte idazleak heteronormatibitatea ezbaian jartzen duen 'beste zerbait' lanik berriena aurkeztu du Mallabian. / 2-3



ZERBITZU PUBLIKOAK

### ELAren protesta Durangon, Madalenako Gizarte Segurantzaren bulegoa zarratu dutela eta / 5

FUTBOLA

### Jon Morcillok ezin izan du mailaz igo Almeriagaz: "Kolpe gogorra izan da"

Futbolari zornotzarra Lehen Mailara bueltatzeko ilusioz batu zen talde andaluziarrera urte hasieran, baina igoerak ihes egin die azken unean. / 22



## Durangaldean gozo, munduari buruz ikastera etorrita

Palestinako zortzi ume lehenengoz irten dira Balatako errefuxiatuen kanpalekutik mundu zabalera. Astelehenean ailegatu ziren Durangaldera, eta domekara arte egongo dira hemen. Tokiko elkarteek, komertzioek eta boluntarioek elkartasun sare oso bat josi dute umeentzat. / 4

LITERATURA

### Bakedanok 36 testigantza batu ditu Oteizaren figurara gerturatzeko / 17



Jose Julian Bakedano, 'Para conocer a Oteiza' liburu berria esku artean.

**DIBA**  
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Joseba Derteano ZALDIBAR

Ekainaren 28ko LGBTI+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna gertu dela, Danele Sarriugarte Mochales idazle eta itzultzaileak (Elgoibar, 1989) bizitzeko eta mundua ulertzeko beste bide batzuek berba egin digu. Joan zen barikuan, iaz argitaratutako *beste zerbait* liburua aurkeztu zuen Mallabian, Miren Artetxe eta Oihana Arana bertsoariak lagunduta. Heteronormatibitatea auzitan ipintzen du, bizitzeko beste modu batzuk irudikatuta, ahots eta erregistro desberdinen bitartez.

**J. Martinaren kanta batetik hartutako berbek eman diote izenburua eleberriari. Zer dio kanta horren letrak eta zer aurkitu duzu bertan?**

Kantako estribilloa da, eta honela dio: *Baina nik badaukat/ beste zerbait/ argitzen dit gogoa/ zorrotzu ere bai/ eta ikusten dut banaizela/ miseriatik at bizitzeko gai.* Estribillo horrek indar handiko ideia bat biltzen du, eta hortik garatu da, neurri handi batean, liburu osoaren ideia. Erakusten du bada goela ezarritako horretatik, jaso eta sinesten dugunetik harago zerbait; beti dagoela hirugarren edo laugarren bide bat topatzeko aukera. Kantaren letran miseria aipatzen da, eta agian, lehen kolpean, miseria ekonomiko edo soziala etor daiteke gogora. Nik hortik harago, nolabait, bizitza heteronormatutik haragoko bizimoduaren aldeko aldarri moduko bat egin nahi nuen. Ez dakit aldarri bat den, baina bai beste aukera batzuk badaudela erakutsi: beste modu batera bizitzeko aukera, ez bakarrik maila sozialean, baita harremanetan ere. Alde horretatik, hirugarren edo laugarren bide horri egiten dio erreferentzia. Gainera, uste dut liburuak baduela beste alderdi bat ere: literaturan gauzak ez direla zertan beti modu bakarrean egin, modu askotan egin daitezkeela eta nobela batek berak ere beste zerbait izan dezakeela.

**Liburuaren aurkezpenean aipatu zenuen zure aurreko liburu bien aldean beste pauso bat emango zuela. Non ikusten da pauso hori? Hainbat gauzatan eman nahi nuen pauso bat. Lehenengo liburuan oso ahots indartsu batek gidatzen zuen narrazioa. Bigarren liburuan perspektiba bat baino gehiago agertzea nahi nuen, eta hori lortzeko pertsonaiak sortu nituen. Liburu berrian perspektiba anitzak erabili ditut berriro, baina**

## "Amorruaz gainera, beste afektu batzuk agertzea nahi nuen liburuan: poza eta alaitasun momentuak"

DANELE SARRIUGARTE IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

Danele Sarriugartek 'beste zerbait' eleberria aurkeztu du Mallabian. Argitaratzen duen hirugarren eleberria da. Ahots, erregistro eta lekukotza desberdinak uztartuta, ezarritako moldeak zalantzan ipintzen ditu



Danele Sarriugarte Zaldibaren, 'beste zerbait' liburua eskuetan duela.

neureago sentitzen dudana modu batean, ahotsak ugarituz; hau da, pertsonaiak sortu beharrean, ahots beraren hainbat erregistro baliatuz. Nabarmendu nahi nukeen beste alderdi bat honako hau da: lehen liburuko ahotsaren barruan, oso presente zegoen afektu bat amorruarena zen eta liburu honetan beste afektu batzuk agertzea nahi nuen: poza eta alaitasun momentuak, esaterako. Liburu hartatik honetara 11 urte joan dira eta beste momentu batean nago. Azken batean, liburuak eta bestelako kultur lan bakoitzak bere momentuan kon-

**"Lekukotasunak erregistro informala erabiltzeko aukera eskaintzen zidan, konfiantzazko giroan"**

**"Erakusten du badagoela ezarritakotik harago zerbait; hirugarren edo laugarren bide bat"**

tatzeko dituen gauzak sortzen ditu. Orduan, hasteko eta behin, bazegoen gauza bat presente zegoena nigan, baina aldi berean bazen nahita landu nahi nuen zerbait ere; gauza ederrago edo alaiagoei ere lekua egin nahi nien, sentitzen nituelako, eta, gainera, inportantea iruditzen zitzaidalako horiek ere islatzea. Liburuari oreka bat ematen diote eta nire proiektuarekin zintzoago sentiarazten ninduen. **Eta aurreko lanetatik zer mantentzen da? Zeintzuk elementu egingo zaizkio ezagun irakurleari?**

Hizkuntzarekiko zehaztasunaren, zorrotzasunaren eta aldi berean edertasunaren bilaketa hori hiru liburuetan dago. Nire idazketan oso presente dagoen ezaugarria da. Horrez gainera, lehenengo liburuari buruz esan dudana bezala, amorrua da afektu nagusietako bat, eta uste dut horrek ere bere horretan jarraitzen duela. Nolabait, haserretzen gaituen horren aurrean tresna gisa erabiltzeko modu bat da idazketa, eta hori ere hiru liburuetan mantentzen dela esango nuke: hizkuntzaren lanketa eta idazketaren eta amorruaren arteko lotura.

**Zein da liburuaren sinopsia?**

Liburuak, azken batean, ibilbide bati jarraitzen dio. Nolabait, subjektibitate baten eraikuntza kontatzen du: ahots bat hainbat erregistrotan agertzen da, eta haurtzaro-nerabazarotik heldutasunera doan bidea egiten du. Ibilbide horretan, egitura sozialek garrantzi handia dute, hala nola eskolak, bikote-harremanek edo kuadrillak. Horien inguruko pasadizoak, hausnarketak eta askotariko materialak biltzen ditu liburuak. Horrez gain, kultur munduan bizitako esperientzien inguruko kontaketa ere badago. Nire ustez, ibilbide hori askapen edo ezagutza-prozesu bat da neurri batean: kanpotik datorrenarekin eta norberak aukeratu ez duenarekin negoziatio ariketa bat, eta, aldi berean, horretatik ahalik eta askeen izateko ahalegina.

**Ahots, tonu eta genero desberdinak nahasten dira liburuan. Horrek joko edo askatasun handiagoa eman dizu idazterakoan?**

Bai. Azken batean, nik ez nuen erabaki horrela idatziko nuela liburuak. Era askotako testuak nituen eta abiapuntu bat hori zen. Horrela izan ez balitz, ez dut uste liburuak osatuko nuen-

nik. Urte hauetan nahikotxo idatzi dut, baina oso gauza desberdinetan aritu naiz, eta tarteka. Ez dut izan idazketa errutina bat; hau da, egunero ez dakit zenbat ordu honi eskaintzen. Orduan, tarteka egindako idazketa bat izan da eta gero hori dena elkartu, landu eta fintzea lan sistematikoago bat izan da liburua osatu arte. Beraz, askatasuna eman baino gehiago, horrela idazteak liburua osatzea ahalbidetu didala esango nuke. Hauxe zen momentu honetan idatzi nahi nuen liburua, baina baita idatzi nezakeen liburua ere.

**Beste pertsonaia batzuen lekukotzak ere txertatu dituzu. Zer eman diote liburuari?**

Lekukotasunaren generoa interesgarria iruditu zitzaidan, batez ere oso erregistro informala erabiltzeko aukera ematen zuelako, konfiantzazko giro batean. Esparru egokia iruditu zitzaidan esperientzia mingarri batzuk kontatzeko, gauza horiek arintasun handiagoz kontatzeko aukera ematen baitzuen. Istorio moduan kontatuz gero, agian pisu handiagoa hartuko zuketean; lekukotasunak, ordea, beste naturaltasun bat eskaintzen zidan. Gainera, heterodizidendiaren barruan, gaur egun herrietan LGTBI diagnostikoak egiten eta testigantzak biltzen ari direnez, genealogia hori ere niretzat hartzen dut, eta neurri batean hortik ere edaten du liburua.

**la liburu osoa letra xehegaz idatzi duzu. Zer bilatzen zenuen horregaz?**

Bai, batez ere zati literarioen erabili dut, saiakeratik gertuago dauden testuetan baino gehiago. Azken kasu horiek, nolabait esateko, "normal" idatzita daude. Niretzat, letra xehe idazteak askatasun eta lasaitasun moduko bat ematen zien pasarte horiei; bisualki ere badirudi tonu bat jaisten diela. Askotan galdetu didate ea horren atzean teorizazio jakin bat dagoen, eta egia da

**"Letra xehe idaztea apaltasun-keinu moduko bat da, oktaba bat baxuago kantatzea bezala"**

ez naizela letra xehez idazten duen lehena: hainbat feminista ere beren izen-abizenak horrela idazten dituzte, eta horrek badu esanahi inportanteago bat. Nire kasuan, ordea, ezin dut ukatu batez ere erlaxatu egiten ninduela eta errazago idazten nuela letra xehez.

Bestetik, itzultzailea eta zuzentzailea naiz, eta hizkuntza arautuan askotan sartzen naiz. Horrek ere erakutsi dit hizkuntza arautzen duten ortografia-arau asko ausazkoak direla.

Eta esaldi bat letra xehez edo larriz idatzita egon, komunikazioa ez da ia oztopatzen, eta irakurleak berdin ulertzen du. Ikasketetan alemana ikasi nuen eta alemanez izen arruntak ere letra larriz idazten dira esaldiaren barruan. Orduan, banuen ausazkotasun horren kontzientzia. Horregatik, liburu batek arauak zalantzan jartzeko aukera eskaintzen duenez, horrekin jolasteko modu bat ere bada. Dena den, hori bigarren mailako arrazoiak dira niretzat. Lehenengo eta garrantzitsuena tonuari lotuta dago: egunerokotasunaz ari diren testuak direnez, letra xehez idaztea apaltasun-keinu moduko bat da niretzat, oktaba bat baxuago kantatzea bezala.

**Zer espero duzu irakurleak aurkitzea zure liburuan?**

Ba, ez dakit, egia esan. Kontakutako dizut orain arte jaso dudana feedbacka: parte bat espero nezakeena zen, liburuarekin lotura sentitu duen jendearena, identifikatu direnak hainbat motiborengatik. Hori niretzat oso pozgarria da. Hemen kontatzen diren gauzek oihartzun zabalagoak sortu ditzaketela uste dut, elkarrizketak elikatu ditzaketela. Baina kontrako iritzia ere jaso dut, deserosoa egin zaion jendearena. Hori ere eskertzekoa da, esan nahi duelako liburua ez dituela indiferente utzi. Zerbait ukitzen baldin badu, niretzat opari handia da.



'beste zerbait' eleberriaren aurkezpena Mallabian. Arana eta Artetxe bertsoan aritu ziren, eta Sarriugarte gai-jartzaile.





Lehenengoz hartu dute bainua itsasoan, Ondarroan. DURANGO-PALESTINA



Mesoi Barrian armozatzen.



Dantza palestinarrek egin zituzten lurretako plazan. DURANGALDEA-PALESTINA

## Durungaldeak elkartasun sare oso bat eskaini die Palestinatik etorritako umeei

Domekara arte egongo dira hemen. Lehenengoz irten dira Balatako kanpalekutik

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Zisjordanian errefuxiaturiko zortzi ume palestinar Durangaldera etorri dira oporraldia gure eskualdean pasatzera. 10etik 15 urtera arteko neska-mutikoak dira eta Ibrahim Jamal begiralea dute lagun. Tokiko eragileen babesagaz, eskualdeko eta Euskal Herriko bazterrak ezagutzen dabilta.

Durango-Palestina mugimenduko kideek jakinarazi dutenez, astelehena ailegatu ziren eskualdera, "lehertuta", hona ailegatu baino lehenago Britainiako Kemper-Gwezhenne

udalerrian egon ziren eta. Umeetako batzuek Ibaizabal ikastolako aterpetxean hartu dute ostatu. Beste batzuek durangar baten etxean igaroko dute egonaldia. Domekara arte egongo dira gure artean. Eta, bien bitartean, bakea. Bakea eta gozamenena, "ondo pasatzera etorri direlako". Horregaitik, geratu barik dabilta Durangaldekoko eta Euskal Herriko bazter batzuk ezagutzen: "Martitzenean, esate baterako, Iurretan egon ziren. Herriko dantza taldeagaz dantza egin zuten, izatez, ume palestinar hauek dantza talde bateko

kideak dira eta. Palestinako dantza tradizionalak plazaratu zituzten. Gero, herri afarian eta dantzaldian ere parte hartu zuten". Horrez gainera, Ondarroa aldean ere ibili dira, hondartzan. Lehenengoz ikusi dute itsasoa eta lehenengoz hartu dute bainua bertan. "Balatako kanpalekutik irtetea debekatuta dugarako", esan du Ibrahim Jamal begiraleak. "Orain 70 urte, bagenuen itsasoa, baina okupazioaz geroztik ez. Ume hauek gaur arte ez dute itsasoa ezagutu", azpimarratu du Jamalek. Eta Iurretan eta Ondarroan

ibiltzeaz gainera, Elorrión, Barakaldon, Ermuan eta Bilbo aldean ere ibili dira, San Mamesen ere bai, non eta Athleticean etxean, zer eta Palestinan gertatzen dabilena nazioartera zabaltzeko. "Ume hauentzat oso inportantea da kanpalekutik irtetea, ikasteko, adibidez, mundua askoz ere zabalagoa dela eta bizitzeko hainbat modu dagoela. Umeak dira, mediku izan gura dute, ingeniari eta abar. Amets egitea dagokie", nabarmendu du begiraleak. Horrez gainera, herri palestinarren kontrako genozidioa ere salatu du: "Nazioarteari eskatzen diogu Palestinaren ondoan egoteko, eta Israeli inbasioa amaitzeko. 70 urte daramatzagu honeguz. Nahikoa da".

**Babes sarea**

Zortzi neska-mutikoek eta begiraleak eskualdeko elkarte

eta eragileen babes sendoa dute ondoan. Besteak beste, Durangoko eta Elorrioko Palestinaren aldeko mugimenduen, Berbaro euskara elkartearena, Tabirako jai batzordearena eta Mesoi Barria tabernarena. Azken horretan dabilta egonaldiko gosari, bazkari eta afari guztiak egiten, Milarenean. Durangoko ile-apaindegi bik ere bat egin dute elkartasunagaz, eta ilea moztu diete zortzi umeei. Ibaizabal ikastolak debalde eskaini die aterpea eta hainbatek edozertan laguntzeko borondatea erakutsi die palestinarrei. Domekan amaituko da egonaldia, orduan hartuko dituztelako hegaldiak Barajasera eta Nizara, handik errefuxiatuen kanpalekura bueltatzeko. Bidaia eta oporraldia amaitu arren, itxaropenak eta elkartasunak denboran iraungo dute.

## Correos eraikina sanfaustoak baino lehenago botatzea aurreikusi dute

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Durangoko Udalak epe bi markatu ditu udal plaza handitzeari begira. Postetxe zaharra sanfaustoak baino lehenago bota gura dute, eta behin eraikina kenduta, urtea amaitu baino lehenago hasi gura dute plaza handitzen. Iragarri dutenez, kareharrizko zoladura, gingko biloba zuhaitzak eta harri beltzeko bankuak ipiniko dituzte plazan, eta ispilu itxurako horma udaletxe pareko fatxadan. Elementu horiekin guztiak erabilera publikorako azalera handitu egingo dela eta lotura bisuala hobetu egingo dela esan du udalak. Mireia Elkoroiribe alkateak proiektuaren garrantzia azpimarratu du: "Durangoko gu-

nerik enblematicoenetarikoa bat da, eta urteen poderioz txiki geratu da. Plaza handitzeaz gainera, proiektu honek modernitatea, tradizioa eta memoria batzen dituen topaleku bat bueltatuko die herritarrei".

EH Bilduk, ostera, eraikina botatzea kritikatu du, "diru publikoa xahutuko" delakoan. Koalizioak esan du eraikina birgaitzearen alde lerratu dela beti, eta gogorarazi du Espainiako gobernuaren eskutik diru laguntza bat lortu zuela postetxe zaharrean kultur etxe bat atondu ahal izateko. Baina, subiranisten esanetan, EAJK beste bide batetik jotzea erabaki zuen. "Espainiako estatuko



Correos eraikina.

diru laguntza baztertu zuten; 1,5 milioi euro bueltatu zituzten, 46.000 euro baino gehiago ordaindu interesetan, eta orain 597.097 euro gastatuko dituzte eraikina botatzeko", kritikatu du koalizioak.

## Landako Eskolak bideoak egin du



LANDAKO ESKOLA

**E.H. DURANGO**

Azken hileetako lan isilak fruitu polita eman du Landako ikastetxean: hezkuntza komunitateko ikasleek, familieek, irakasleek eta herriko eragileek bideoak ondu dute elkarlanean. Amaia Trejo irakasle eta eskolako gurasoak ipini dizkio berbak, eta Maider Lopez ikastetxeko amak eta musika eskolako irakasleak konposatu du abestia. Bideoan, eskolako nortasuna eta balioak islatu dituzte.

## Gizarte Segurantzaren bulegoa ixtearen kontra, protesta Durangon

**Aitziber Basauri** DURANGO

Madalenako Gizarte Segurantzaren Bulegoa, herritarrei arreta eskaintzen diena, zarratuta dago ekainaren 1etik. "Langile faltagaitik", ELA sindikatuaren esanetan, "eta baliteke gehiago ez irekitzea eta herritarrei zerbitzu publiko bat kentzea". Ildo horretan, sindikatuak protesta egin zuen bulegoaren aurrean joan

zen astean. Adierazi dutenez, halako itxierak erakusten dute "estatuko administrazioan eskaintzen diren lan baldintzak ez direla nahikoak Euskal Herrian modu duin batean bizi ahal izateko", eta "langile eskasiak ondorio larriak" dakarziela herritarrei. Hori dela eta, Gizarte Segurantzaren kudeaketa Espainiako gobernutik Eusko Jaurlaritzaren

eskuetara igarotzea eskatu du ELAk, hau da, transferentzia egitea. Era berean, eszenatoki hori ailegatu bitartean, lanpostu eta hautaketa probetan lurraldetasunaren irizpidea kontuan hartzea exijitu dute: "Kontuan har daitezela Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako errealitateak lanpostuak eskaintzerako orduan: langile falta, bizi-maila, hizkuntza...", esan du sindikatuak. Espainiako Gizarte Segurantzaren bulegoa Madalengan egon da oraintsu arte, Francisco Ibarra kalean.



ELAren protesta joan zen barikuan, bulegoaren aurrean. ELA SINDIKATUA

## 15 aparkaleku kenduko dituzte Sasikoan, segurtasuna hobetzeko

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Durangoko Udalak Sasikoa eta Artzetaungana kaleak berrantolatuko ditu datozen asteetan, trafikoaren arintasuna eta segurtasuna hobetzeko. Neurriak esanguratsuenetariko bat Sasikoan hartuko dute: lineako aparkalekuko 90 metro inguru kenduko dituzte, hau da, 15 bat aparkaleku. Udalak honela arrazoitu du erabakia: "Egiaztatu da egungo galtzadaren zabalerak 3,30etik 3,40 metrora artean neurtzen duela, eta baterian zein lerroan dauden aparkalekuek zailtasunak sortzen dituztela zirkulazioan. Horrek maniobrak zailtzen ditu eta herritarren artean segurtasun ezaren pertzepzioa eragiten du, nahiz eta abiadura murriztuko bidea izan". Hori horrela, aparkalekuak kenduko dituzte, eta segurtasun zerrenda bat sortuko dute oinezkoentzat. Lan horiek 21.138 euroko aurrekontua izango dute.

Bestalde, Artzetaungana kalean (Landako eta Olleria kaleetatik

gertu) zirkulazioaren noranzkoa aldatuko dute. Aldaketa horren helburua Abadiñorako eta N-634 errepiderrako lotura zuzenagoa eskaintzea da, ibilgailuek Txibitenatik eta osasun zentroko biribilgunetik igaro behar izatea saihesteko.

Udalak dio esku-hartze horiek udalerriko mugikortasun estrategiaren parte direla.



Sasikoa kalea.

## Babesleku klimatikoak lehenengo saioa Durangon

**E.H. DURANGO**

Durangoko Udalak Babesleku klimatikoak garatzeko lehenengo lan saioa egingo du astelehenean, ekainak 29, San Faustoko ermitan, 18:00etan. Jardunaldi horren helburu nagusia bero boladei aurre egiteko espazio fresko eta seguruen sarea sortzea da herritarren eta tokiko eragileen

ekarpenekin. Lehenengo topaketa horren ondoren, beste hiru egingo dituzte: Madalenako ermitan ekainaren 30ean, Otamotzenako auzogunean uztailearen 6an, eta Intxaurrendoko eraikinean uztailearen 7an. Saio guztiak 18:00etan izango dira.

Sare horren bitartez, tenperatura altuko aldietan erositako terminoak bermatuko duten guneak identifikatu gura dituzte, ura, gerizpea eta 26 gradutik beherako tenperatura dutenak, umeentzat eta adinekoentzat gehienbat.



Egoitzako instalazioak etxe baten antzekoak dira.

PUBLIERREPORTAJEA

# Toki gehiago errekupeazio funtzionalerako

**IMQ Igorco Orue**

IMQ Igorco Orue egoitza sozio-sanitarioak, Amorebieta-Etxanoko Duedeako Done Mikel auzoan dagoenak, laugarren solairu handitu berria inauguratuko du, eta, handitze-lan horri esker, Errekupeazio Funtzionaleko Unitatea indartu ahal izango du.

Hamar urtetik gorako esperientzia du Unitateak, zeinetan ehunka pertsona artatu dituen, eta egun arreta ematen die ebakuntza kirurgiko baten, istripu zerebrobaskular baten edo eriondo luze baten ondoren autonomia-galera berreskuragarria duten eta etxera itzuli aurretik zainketa espezifikoak behar dituzten pertsonen.

Solairu berriak 17 leku gehiago ditu, eta mila metro koadrotik gorako azalera, eta horri

140 metro koadroko terraza gehitu zaio.

Haren alde nagusietako bat sukalde terapeutikoa da, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak tailer espezifiko bidez lantzeko sortu dena. Izan ere, gaitasun funtzionalak berenganatu eta etxera itzuli nahi duten pertsonentzako funtsezko eremua da.

Solairu berriak lau egonleku handi ere baditu, horietako bat liburutegia izateko sortua. Haietan jarduera terapeutikoak, sozialak eta aisialdikoak egin ahal izango dira.

Espazioen antolamenduak, halaber, terrazara sartzeko errazten du; hala, terraza Unitatearen eguneroko bizitzan txertatu da, eta paseatzeko, atsedean hartzeko eta aire zabaleko jarduerak egi-

teko aukerak ugaritzen ditu. Paisaiaren bista ederrak izateak, gainera, kanpoko espazio horren balioa indartzen du.

Unitatea handitu izanak teknologia berriak ere badakartza, hala nola IMQ IgorTEK tresna erabiltzeko tabletak, zentroan egingo diren fisioterapia-saio indibidualizatuen lagungarri.

Errekupeazio Funtzionaleko Unitatea ez ezik, Oruek baliabide hauek ere baditu: egoitza-arreta, erizaintza 24 orduz urteko 365 egunetan, jarduerak egiteko programak, lanbide-terapia, bizitzaren amaierako zaintzak eta erabiltzaileei eta haien familiei laguntzeko hainbat zerbitzu. Zentroak, gainera, badu Bizkaiko Foru Aldundiaren sare barruko bost Egoitza Unitate Soziosanitarioetako bat, 20 leku dituen.

## "Abadiño euskaldunago egiteko talde motorea indartzea izango da norabidea"

IRATI BARONA ARTZENIEGA TAUPAKO KIDEA

Ekaitz Herrera ABADIÑO

*Bizkaian bagara* egitasmoaren barruan, Taupak gogoeta saioak egin ditu Abadiñon. ANBOTOK Irati Barona dinamizatzaileagaz berba egin zuen.

**Zer da Taupak Abadiñon egin duena?**

Abadiñon gogoeta saio batzuk egin ditugu. Hau da, bertan antolatuta zegoen taldetxo bati, euskaltzale talde bati, euskaltzaleak izan daitezkeen hartu-emanak egitea edo jendea identifikatzea eskatu diogu, eta zenbait saio planteatu dugu denak batzeko eta gogoeta egiteko. Bizkaiko Foru Aldundiak lagundutako ekimena da, eta ideia edo helburua da Abadiño euskaldunagoa izateko zer beharko luke ten identifikatzea, eta hori ere, nolabait, errealitatera ekartzea. Esan nahi dut, errealista eta egingarria izatea. Abadiño euskaldunagoa izateko zer egin daitezkeen planteatzea da, hori guztia txikitasantetik. Azken batean, herritar talde bat, euskaltzale batzuk, saretu dira eta.

**Hiru saio egin dituzue Abadiñon. Zein izan da saio hauetan egin duzuen?**

Lehenengo saioan parte hartzaileek diagnostiko bat atera zuten, bakoitzak bere bizipenetatik eta ezagutza edo ez-ezagutzetatik. Hor hainbat ideia atera zen, ideia orokorrak, gai desberdinekin lotura dutenak. Behin ekarpen horiek izanda, ekarpen edo ezagutza eta ez-ezagutza horiek arloka banatu genituen. Eta gero, horien artean sailkapen bat egin genuen. Bigarren saio batean, hiru aukeratu genituen eta horietan zentratuta zer gauza egin daitezkeen proposatu genuen. Eta azken saioan, aurretik egindakoari gorputz gehiago eman diogu, apur bat gehiago zehaztu dugu egin beharrekoa, Abadiñora bertara jaitsita.

**Hiru ardatz zehatz irten dira Abadiñoko kasuistikan: aisialdia, motibazioa eta sentsibilizazioa, eta kirolak.**

Jendearen iritziz, hiru gai horiek dute lehentasuna. Abadiñon egon badago talde motorea sortzearen ideia, eta, hasteko,



Manuel Moreno eta Irati Barona.

horixe da garrantzitsuena. Egia esanda, gaur egun badago taldetxo bat, baina jende gehiago batuz gero talde hori egonkor tu egin liteke eta gaitasun handiagoa izan lezake eragiteko. Aisialdian ere ikusi da bada-goela aukera eragiteko, eta, kasu honetan, talde motorearen jarraipena ez litzateke hain beharrezkoa izango. Baita kirol munduan ere. Kasu honetan, euskaraz jakin arren, gure hizkuntza ez da askorik erabiltzen. Beraz, talde motorea sortzen bada, esango nuke hiru arlo hauek oso uztargarriak direla eta taldeak badaukala potentziala. Saio hauetan parte hartu eta gero, jendea motibatua go ikusten dut. Eta, nire ustez, hori izango da norabidea Abadiño euskaldunago egiteko, taldea indartzea, eta horren

**"Dinamika hauek arnagune bat ematen diote euskarari, zeinetan horixe den gai zentrala"**

barruan helduleku izan daitezkeen hiru ideia horiek garatzen joatea.

**Norabide hori Abadiñoko taldeak erabakiko du ala Taupa arituko da horretan?**

Egia esanda, nire lehenengo aldia da halako gogoeta saio batean, eta apurka-apurka ikasten nabil. Baina, nire ustez, orain Abadiñoko sare honen txanda da eta eurek hartu behar dute lekukoa. Saretuta dauden bitartean, jakingo dute zein den norabidea eta ikusiko dute norantz joan. Hori bai, Taupa beti izango dute bidelagun, baita neu ere. Beraz, Taupa bigarren plano batean geratuko da orain, baina hor jarraituko du. Sareak hartu behar du protagonismoa.

**Horrelako egitasmoak zergaitik dira garrantzitsuak euskararen berreskurapenerako?**

Espazio bat sortzen dute euskarari dedikatzeke, izan aktibazioan, izan sentsibilizazioan. Nolabait esateko, arnagune bat ematen diote euskarari, baina batez ere espazio bat zeinetan horixe den gai zentrala. Espazio hauek saretzeko ere balio dute.

## Mañariko Udalak lizitazioa atera du Errekondo jatetxearen kudeaketa

J.D. MAÑARIA

Mañariko Udalak Errekondo jatetxearen kudeaketa esleitzeko lizitazio publikoa abiatu du. Interesdunek abuztuaren 3ra arte izango dute proposamenak aurkezteko aukera, udalak ohar batean zehaztu duenez. "Errekondo herriko eguneroko bizitzaren parte izan da urte askoan. Lizitazio honen bitartez, kalita-

tezeko zerbitzua eta kudeaketa egonkorra bermatzea da gure helburua", adierazi du Aitziber Areitio alkateak. Kontratuaren hasierako iraupena urte bikoa da, eta, ondoren, urterik urte luzatu ahal izango da, gehienez zortzi bider. Lizitazioari buruzko baldintzak udaletxean eta Euskadiko Kontratazio Plataforman kontsultatu daitezke.



Proposamenak abuztuaren 3ra arte aurkeztu daitezke.

## Bero handiak ez du jai giroa eragotzi Izurtzako Aste Kulturalen



Jan-edanean Santo Tomasen.

J.D. IZURTZA

Izurtzako Aste Kulturalak eman du berea. Bero handia ez da oztopo izan izurtzarren artean jai giroa nagusitzeko. Esaterako, San Joan bezperan su sinboliko bat baino ez zuten egin Santo Tomas parkean, baina bertaratu zirenek musikagaz eta jan-edanagaz gozatzeko aukera izan zuten. Bestalde, joan zen asteburuan egitekoa zen artisau azoka bertan behera utzi behar izan zuten, muturreko tenperaturengaitik. Aste Kulturalaren barruko gainerako ekimenak normal-normal egin zituzten.

## Udaleku Ibiltarian izena emateko epea zabalik Mallabian



Mallabiko argazki orokor bat.

M.Z. MALLABIA

Uztailaren 12tik 17ra egingo den Udaleku Ibiltarian izena emateko aukera dago oraindino Mallabian. Udaleku Ibiltaria 2008tik 2013ra arteko urteetan jaiotako gazteei zuzenduta dago. Mallabiko Udalak jakinarazi du 25 plaza daudela eskuragarri jarduketa honetarako, eta lehentasuna herriko gazteek izango dutela.

Udalekuetan izena eman gura duten gazteek Kultur Etxean egin dezakete hori, uztailaren 3ra bitartean, hartara oporrak topera gozatzeko.



## 29 EKAINA



MAGIA

### DELIVERY

Oier Jurado  
magoa

18:00 TABIRA PARKEA

Euria bada:  
SAN AGUSTIN  
KULTUR  
GUNEA

## 29 EKAINA



### BERTSO SAIOA

Gorka Pagonabarraga  
Agorria, Nerea Ibarzabal  
Salgoi, Inune Basagoti  
Agirre, Gorka Lazkano  
Aritzubieta,  
Gai-jartzailea: Ander  
Elorriaga Arestil

19:00 TABIRA PARKEA

Euria bada:  
TABIRAKO  
ELIZPEA

## 2 UZTAILA



PERFORMANCE

### OTEIZAREKIN SOLASEAN

Beñat Achiary  
eta Alaitz Muro

18:00 BENITA URIBARRENA PARKEA

Euria bada:  
ARTE ETA  
HISTORIA  
MUSEOA

## 4 UZTAILA



ANTZERKIA

### GOTA

Txema Muñoz

20:00 AURORA ABASOLO PARKEA

Euria bada:  
LANDAKO  
GUNEA

## 9 UZTAILA



MUSIKA

### ARRIAGAREN OMENEZ

Botxo  
Boogies

20:00 PLATERUENAKO TERRAZA

Euria bada:  
PLATERUENA

## 11 UZTAILA



UDAKO ZINEA

### KAYARA, INKA GERRARIA

20:00 TABIRA PARKEA

Euria bada:  
ANDRA  
MARIKO  
ELIZPEA

## 18 UZTAILA



DANTZA

### DANTZA GARAIKIDEKO 2 PIEZA

Sangre y klorofila  
Larrua Produksioak  
Kea  
DAB Dantza konpainia

20:00 EZKURDI PARKEA

Euria bada:  
LANDAKO  
MARIKO  
ELIZPEA

## 23 UZTAILA



MUSIKA

### IRATI BILBAO

Bloom

20:00 PLATERUENAKO TERRAZA

Euria bada:  
PLATERUENA

## 24 UZTAILA



FAMILIENTZAKO  
ANTZERKIA

### ALONSO EZINEZKO MANDATUEN MEZULARI

Hortzmuga  
Antzerkia

19:00 OTAMOTZENA PARKEA

Euria bada:  
LANDAKO  
GUNEA

## 1 ABUZTUA



ZIRKOA

### ANÓNIMA

Vaiven Circo

18:30 AURORA ABASOLO PARKEA

Euria bada:  
LANDAKO  
GUNEA

## 8 ABUZTUA



ANTZERKIA

### THE NOT- SO-GREEN MAN

Oskar  
Luko

20:00 BENITA URIBARRENA PARKEA

Euria bada:  
SAN AGUSTIN  
KULTUR  
GUNEA

## 5 IRAILA



ANTZERKIA

### KODIZIA LATE NIGHT

Cia BarSanti

22:00 AURORA ABASOLO PARKEA

Euria bada:  
NEVERS  
IKASTETXEA

## Mikel Urdangarin, Olaia Inziarte eta Señeak, besteak beste, Landaland-en

Zapatuan Landaland jaialdiaren lehenengo edizioa egingo dute Zornotzan

**Aritz Maldonado** ZORNOTZA

Kulturaz familia giroan ere gozatu daitekeela erakusteko eta bestelako aisialdi eskaintza bat bultzatzeko asmoagaz antolatuko dute Zornotzako Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Landaland jaialdia. Zornotzako Jauregibarria inguruetara dozenek egun osoko egitarauaz gozatu ahal izango dute zapatuan. Udabarri dantza taldeak emango dio hasiera egitarauri, 12:30ean, eta diziplina desberdinetako zaleek gozatu hartu ahal izango dute eskaintzagaz. Goiztiarrenentzat egurrezko jolasekin aritzeko aukera egongo da, eta eskalada gustuko dutenak egun osoan zehar rokodromoan ibili ahal izango dira. Musikazaleek, Mikel Urdangarin, Zornotzako Musika Bandaren eta Olaia Inziarteren kontzertuak ikusteko aukera izango dute. Gastronomia gustuko dutenek *food trucks*-ak izango dituzte gunean. Ipuin kontalariak eta Eneko Martinez magoaren ikuskizunaz gozatzeko aukera ere egongo da; biek ala biek emanaldi bikoitza egingo dute, gainera: goizean eta arratsaldean.



Mikel Urdangarin, kontzertu bateanx. M. U.

Leixuri Arrizabalaga Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatuak Señeak taldearen kontzertua nabarmendu gura izan du eskaintzaren artean. "Gure proiekturik kutunenatariko bat da. Guretzat garrantzitsua da Zornotzako Udalak talentu gaztearen aldeko apustua egitea, eta horrek bereziago egingo du Landaland", azpimarratu du. Hain zuzen ere, 10etik 14 urtera bitarteko gazteentzat Lauaxeta ikastolak antolatzen duen "rock campusa" da Señeak. Bazkalostean izango da euren emanaldia, 16:30ean. Campusean

ikasitakoa erakusteko aukera bikaina izango dute gazteek.

**Zornotxoria, Anita Maravillas**

Egitarauko unerik hunkigarrietariko bat eguerdian biziko da. Hain zuzen ere, Max saria lortu berri duen Anita Maravillas taldeari Zornotxoria emango diote ekitaldi batean. "Jardunaldiko une bereziatariko bat izango da hori. Max sarietan lortutakoagaitik egingo zaio aitortza, baina baita euskal kulturaren alde egingo du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak.



Lua Buron eta Ainhoa Salterain.

## Lua Buronek adinekoei keinu egin die Karmenetako kartelean

**Aritz Maldonado** ZORNOTZA

Lua Buron zornotzarrak egin du aurtengo Karmen jaiak iragartzen dituen irudia. Sortze prozesua, baina, ez du bakarrik egin; izan ere, Nafarroa zentroko hainbat erabiltzailearen iruzkinak jaso ditu sortze prozesuan. "Adinekoen parte hartzea ez da anekdota hutsa izan. Helburua argi nuen hasieratik, haien ahotsa eta memoria kolektiboa kartelaren parte izatea gura nuen. Horregaitik, diseinuan agertzen diren hainbat elementu, espazio eta erreferentzia eurek egindako ekarpenetatik datoz", azaldu zuen Buronek prentsaren aurrean. Egile zornotzarrak enkarguz egin du kartela. "Zornotzako sortzai-

leei ez ezik, euren lanei ere ikusgarritasuna eman gura diegu", azpimarratu zuen Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. Sortzaileri ez ezik, aitortza hori adineko zornotzarrei ere egin gura izan die. "Sarritan, jaiak etorkizunera begira bizi ditugu, baina ezin dugu ahaztu gaur garena atzo izan zirenek eraiki zutela", gaineratu zuen alkateak.

Uztailaren 15etik 27ra ospatuko dituzte Karmen jaiak Zornotzan, eta udalak hogeituzte kontzertutik gora ere iragarri ditu. Besteak beste, Süne, El Drogas, Neomak, Chenoa eta Latzen taldeek joko dituzte kontzertuak. "Kulturaren eta jaien alde egiten dugun apustua islatzen du", esan zuen.

## Gaur hasiko dituzte San Pedro eta Santa Isabel jaiak Berrizen

**A. M. BERRIZ**

Miren Amuriza Plazak pregoia irakurrita hasiko dituzte Berrizen San Pedro eta Santa Isabel

jaiak. Ohikoa duten moduan hasiko dituzte jaiak, beste urte batez: kartel egileari saria banatuko diote, sardina-jana egin-



lazko jaietako argazki bat.

go dute udaletxe inguruetan, eta, ondoren, herritarrak Elizondo plazara joango dira Donien Atxa jaso eta Dantzari Dantzaren entsegu orokorra ikustera. Tartean, txosnagunean ere jaurtiko dute txupina. Gauean, Luhartz taldeak erromeria joko du Elizondo plazan, eta txosnagunean Reder taldeak eta La Fulana eta Alaine DJek girotuko dute gaua.

Zapatuan kuadrillek hartuko dute protagonismoa. Paella lehiaketa egingo dute eguerdian, udaletxe lorategian, eta sabela bete eta gero mozorro jaitsiera egingo dute. Oihan Vegak emanaldi bi egingo ditu, umeentzat bata eta nagusiagoentzat bestea. Domekan ere lehiaketa gastronomikorako tartea egongo da, pil-pilean bakailaorik onena nork egiten duen erabakitzeko. Jaiak uztailaren 2ra arte iraugo dute.

## Apatarrak jaietan murgilduta egongo dira astelehenera bitartean

**A. M. ATXONDO**

Eguenetik hona jaietan dira Apatan. Atzo hasi zituzten jaiak, antzerki taldeko kideen pregoiagaz. Gaur, jaietako protagonismo nagusia musikak izango du. Arratsaldean, Pelma&Luis musika jartzaileek dantzan ipiniko dituzte apatarrak; gauean, Igor Martinez eta Kuku DJek egingo dute hori. Eta 21:00etan herri afaria egingo dute frontoian.

Zapatuan, kuadrillak izango dira protagonistak, paella-jana-gaz. Arratsaldean, Joseto Ta Alayak elektrotzarangak herriko kale nagusiak zeharkatuko ditu, eta gauerako musika eskaintza bikoitza egongo da. Alde batetik, Gorka Basoa eta Oier

eta Aratzek kontzertuak emango dituzte gaztetxean; bestalde, Zilibito Records eta Marte Lasarte taldeek joko dute.

**Domekan ere jai**

Jaiak borobiltzeko, domekan kirol eskaintza nagusituko da: frontoian pilota partiduak jokatuko dituzte. Iluntzean, Barsanti konpainiak *Kale gorrian* ikuskizuna plazaratuko du, eta gauean Zartada, Estutu eta Eztanda taldeek kontzertua emango dute gaztetxean.

Astelehenean amaituko dituzte jaiak Apatan. Goizean, jubilatuek egiten duten luntxa egingo dute, eta iluntzean txopoa jasoko dute.



# OSASUN gida.

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zenbakira

**PODOLOGIA**  
PSE: 214/06



**Adinara Urreta Jainaga**

OINEN ZAINZTA ETA TRATAMENDUA  
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA  
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

**NATUROPATIA  
ETA HOMEOPATIA**



*Aurora Julia*

HOMEOPATIA · NATUROPATIA  
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:  
**946 204 218**

Txanporta Plaza, behea - Abadiño  
[www.aurorahomeopata.eus](http://www.aurorahomeopata.eus)



**ODONTOLOGIA**  
PSE:177/26




**DURANGO**  
Clinica dental · Hortz klinika

**ODONTOLOGIA INTEGRATIBOA**

Ahotik lortu zure osasuna

Artekale, 37 DURANGO  
Tel.: 94 604 14 76  
[gerencia@clinicadentaldurango.com](mailto:gerencia@clinicadentaldurango.com)  
[www.clinicadentaldurango.com](http://www.clinicadentaldurango.com)

**ODONTOLOGIA**  
PSE: 26/22



**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
Konfiantzazko hortz klinika Durango

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,  
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA  
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR  
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordutegia:  
Astelohenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00  
Larunbata: hitorduz hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30  
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia  
[www.clinicadentalviteri.com](http://www.clinicadentalviteri.com)

**ODONTOLOGIA**  
PSE: 145/13



**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ·  
INPLANTOLOGIA · KIRURGIA ·  
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA  
IKUSEZINA · ODONTOPIEDIATRIA · PADI ·  
HORTZETAKO ESTETIKA · HORTZETAKO  
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

( Muruetatorre, 2C blokea, behea -  
48200 Durango )  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
[uecdental@gmail.com](mailto:uecdental@gmail.com)

**OPTOMETRIA**  
PSE: 162/13



NAIA ZABALA AUZMENDI  
11507 kol. 26.

**keinu**  
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA · HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA · JATORRIZKO ERREFLEKBUAK · FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA · KIROL IKUSMENA · GARUNeko LESIOAK · UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAren KONTROLA

Arkaz 3 · 48240 Berriz · Tel.: 946 225 099  
[www.keinuoptometriazentroa.com](http://www.keinuoptometriazentroa.com)

**PSIKOLOGIA**



**gure**  
Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen diagnostikoa eta esku-hartzea, diskalkulian adituak.

☎ 613 038 933  
Andra Mari, 16 ID Durango

**PSIKOLOGIA**



**gure**  
Psikologia

**Helduak-nerabeak-haurrak**

- Zure buruan konfiantza sendotzeko ·
- Estresa kudeatzeko ·
- Zure harremanak hobetzeko ·

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

☎ 613 05 38 62  
Andra Mari, 16 ID Durango

**FISIOTERAPIA**  
PSE: 57/16



**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO

[pzubizarreta@gmail.com](mailto:pzubizarreta@gmail.com)  
946 550 049 - 695 784 963

**FISIOTERAPIA**  
PSE: 119/13



**ZAINDUZ**  
Fisioterapia · Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.  
Sala pertsonalizatuak dira,  
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma  
MATIENA-ABADIÑO  
944 657 132 - 686 906 374

# Okm batzen gaituen distantzia

## ANBOTOKIDE

### UZTAILEKO ZOZKETAK



**BASA take away** jatetxeko KMO haragidun eta ogi artisaudun hanburgesa eta bi saltsadun patata errazioa opari. Bariku eta zapatu gauetan gozatzeko.



**Xiberu taberna** (Zornotza) bi gosari bikoitz.



**Aukan izozkiak.** 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. (Durango)



**Areatza bainuetxea.** Gau bat logela bikoitza, gosaria + zirkuitu termala 2 lagunentzat.

### EKAINEKO IRABAZLEAK

#### Ultzamaren produktu sorta

Egoitz Jaio Gabiola

#### Aukan izozkiak

Miren Manzibidor Mugerza

#### Xiberu taberna

Ander Etxebarria Lejarneta

Amalur Macho Olivares

#### Talaso Zumala

Maite Muxika Ulazia

#### Mendexa Abentura Parkea

Gontzal Sarrigoitia Oregi

Eneritz Areitio Alberdi

Itsaso Barroeta Usubiaga

Araitz Basauri Gandiaga

Ander Areitioaurtena Totorika

## Fytasa erosita, Elorrioko Udalak etxebizitza publikoak egiteko bidea zabaldu du

Operazioa "epe ertain-luzera begirako inbertsio estrategiko lege" definitu du

**Joseba Derteano** ELORRIO

Elorrioko Udalak Fytasaren lursaila eta instalazioak erosi ditu. Erosketa prozesua ekainean amaitu da eta operazioaren prezioa 345.000 eurokoa izan da. Operazioa "epe ertain-luzera begirako inbertsio estrategiko lege" definitu du udalak, helburu "argi" bategaz: "Herriaren erdigunean aukera berriak sortzea eta etxebizitza publikoaren parkea handitzeko bidea zabaltea", azaldu du ohar batean. Etxebizitzentzat ez ezik, "herriaren erdigunean dagoen kokapenak eta dituen metro koadroek aukera ematen dute ekipamenduekin eta herritarren beharrikin berriekin loturiko etorkizuneko erabilerak aztertzeke".

Jabetza eskuratu eta gero, udalak esan du "hurrengo urratsak lantzen" dabilela. Ingurumen Sailagaz hartu-emanetan egon da eta kutsadura kentzeko prozedura abiaraziko duen enpresa kontratatu du. Bulegoen eraikina "ahalik eta lasterren" eraisteko asmoa du, premiazko prozedura baten bitartez; izan ere, gaur egun pertsonak "modu irregularrean sartzen dira eraikinera, eta egoera arriskutsua



Fytasa enpresa hartzen zuen azpiegitura, gaur egun. ELORRIOKO UDALA

da". Ondoren, gainerako pabilioiak eraitsi eta deskontaminatzeko lanak egingo dituzte. Aldi berean, udalak eremuaren hirigintza-kalifikazioa aldatzeko prozesua abiatuko du, industria-erabileratik bizitegi-erabilerara igarotzeko.

Fytasa fundizio nodularrak 96 urteko ibilbidea izan zuen, eta 2011n itxi zituen atea behin betiko. Azken urtea udalarentzat "kudeaketa handikoa" izan dela nabarmendu dute, eta erosketa prozesua "konplexua" izan dela, "jabetza egoera bera zaila zelako", besteak beste.

"Alde batetik, inbertsio funts bat zegoen, eta, bestetik, konkurtso-administratzaile bat, Fytasaren zati bat oraindino hartzekodunen konkurtsoan baitzegoen. Horrez gainera, hainbat azterketa egin da operazioaren egokitasuna bermatzeko: lursailaren egoera, kutsaduraren irismena, jarduketaren bideragarritasun ekonomikoa eta udalak erosketa gauzatzeko duen ahalmena. Prozesu osoan zehar beharrezko diskrezioz jokatu da, espekulazio aukerak saihesteko", argitu du udalak.

## Pulla-Azkarreta garatzeko plana behin betiko onartuta

Fytasa erosteaz gainera, Elorrioko Udalak lurralde antolaketa loturiko beste erabaki bat hartu du asteon. Eguazteneko ezohiko udalbatzan, Pulla-Azkarretako plan partziala behin betiko onartu zuen. Prozesuak gorabehera asko izan du urte hauetan, tartean errekursoak, epai judizialak eta herritar batzuen desadostasuna ere. EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin onartu zuten proposamena. "Ezinbestekoa da herriaren izaera industrialari eta langile-herri izaerari eustea, eta, horretarako, lehen eta hirugarren sektoreak babestu eta sustatu behar dira, eta

industriaren etorkizuna bermatu", esan du EH Bilduk; EAJK uste du planak enplegurako "aukera berriak sortzen" lagunduko duela.

Podemosek kontra bozkatu zuen: "Hartutako erabakiak ez die erantzuten herritarrek adierazitako lehentasunei, eta etorkizuneko plangintza baldintzatu dezake".

#### Auzo Koordinakundea, aurka

Elorrioko Auzo Koordinakundeak udalbatzak hartutako erabakia salatu du ohar batean. "Udal plangintza urbanistikoaren porrota nabarmen" uzten duela uste du. "Erabaki honek 105.000

metro koadro inguruko makropoligono industrial baten garapena ahalbidetzen du, balio handiko nekazaritza-lurzuak okupatu eta lurralde eremuan eragin sakona duen eraldaketa bultzatuko duena", adierazi dute. "Udalerrian gutxienez 20 hektarea daude berreskuratu, berrerrabili edo garatzeko modukoak, baina udalak nekazaritza-lur berrien okupazioari eman dio lehentasuna. Bereziki deigarra da, gainera, etxebizitza-sektoreak urteetan garatu barik mantentzea".

Koordinakundeak ekintza judizialak abiarazteko aukera aztertuko du.

## Zaldibarko Aldatsa goitibehera taldeak amaitutzat eman du bere ibilbidea

2021ean sortu zuten elkarte, goitibehera lasterketak berreskuratu guran

**Ekaitz Herrera** ZALDIBAR

Zaldibarko Aldatsa goitibehera taldeak elkarte desegitea erabaki eta amaiera eman dio bost urteko ibilbideari. "Taldea txiki bat izan gara, sei lagunekoa. Ikusi dugu azken urte bietan kostatu egiten zitzaigula gure jardunari eustea. Izan ere, elkarteko kideen egunerokotasuna batetik, eta bakoitza beste hainbat saltsatan sartuta dagoela bestetik, ezin izan diogu gura genukeen tartea eskaini elkarteari", azaldu du Eneko Iraetak, Aldatsako kideak. Elkarte 2021ean jaio zen, izurri betean, garai bateko goitibehera jaitsierak berreskuratu guran. "Goitibeherena txosnaguneko ekintzetariko bat izan da urte askoan, eta hura antolatzen zutenei galdetu genien, beteranoei, ea zelan antolatzen zuten". Eta, halantxik, Aldatsak halako lasterketak antolatu ditu urterik

urte. Bi izan dira nagusiak: goitibehera txikien jaitsiera bata, eta Zaldibarko goitibehera jaitsiera bestea. Azken hori Euskal Inertzia Kopako probetariko bat izan da. Iraetak eskerrak eman dizkie elkarte bultzatzen lagun-

du duten herrikide guztiei. "Bolutario ugari izan dugu bidean, eta lan handia egin dute. Denei eskerrak eman gura dizkiegu", zehaztu du. Elkarteko kideek material guztia Berbarori eman diote, dohaintzan.



2024ko Zaldibarko goitibehera jaitsiera. ALDATSA ELKARTEA

## Dantzari kaleko bizilagunak kexu dira gaez sorturiko zaratagaitik

**Aitziber Basauri** IURRETA

Iurretako Dantzari kaleko herri-tarrek deskantsurako duten eskubidea bermatzea eskatu diote udalari. Azken urteetan, auzotarrak kexu dira Dantzari kaleko terrazadun tabernetan gauetan dagoen zaratagaitik. "Tristura, urteetako nekea, eta gure kexei inork kasurik egiten ez dien sentipena dugu", esan dute, eta neurriak hartzea eskatu dute. "Ez dugu pribilegiarik eskatzen, herri honetako beste edozein bizilagunek erregutu barik duena baino ez. Elkarbizitza duin baterako eta atsedenerako dugun eskubidea sistematikoki urratzen duen egoera bizi dugu, hobetu beharrean oraindino larriagoa bihurtzen dabilena", salatu dute idatzi batean.

"Egunotako beroaldiekin leihoak zabaldu behar ditugu lo egin ahal izateko, gainerako iurretarrak legez. Baina Dantzari kaleko etxarteetan leiho bat zabalteak atsedenera uko egitea esan gura du", salatu dute auzokoei.

Oskar Koka alkatearen berbetan, "ulertzekoa" da Dantzari kaleko bizilegunen egoera. Eta adierazi du euren jardunerako zehaztuta dituzten arauak gogoraziko dizkietela tabernei (taberna eta terrazen ordutegiak, baimendutako dezibelioak...). Hala ere, gaezan udaltzainik ez egotera, zuzenean Ertzaintzari deitzea eskatu die herritarrei.



Dantzari kalea.

## Anteparaluzetan radarra ipini dute

**A.B. OTXANDIO**

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak radar finkoa ipini du Anteparaluzetan, trafikoaren segurtasuna indartu eta bide horretan gertatzen diren arrisku egoerak murrizteko. "Auzokoen eta bertatik igarotzen diren herritarren segurtasuna hobetzea da helburu nagusia", esan dute udal arduradunek.



Anteparaluzeta auzoko artxiboko irudi bat.

## Sendabelarren ikastaroa zapatu honetan Garain

**E.H. GARAI**

Trumoitte kultur elkarteak sendabelarren ikastaroa antolatu du Garaiko Udalaren babesagaz. Zapatuan egingo dute tailerra, ekainak 27, Otea Loran elkartean, 09:30etik 13:30era. Inguruko landareak ezagutzera irtingo dira lehenengo, eta horiei askotariko erabilerak zelan eman ikasiko dute ondoren. Besteak

beste, sendabelarrekin salda, jarabeak zein freskagarriak zelan prestatu ikasiko dute. Jardunaldia Mentxu Amunategi adituak gidatuko du. Bermeotarrak urteak daramatza sendabelarrei buruzko jakintza partekatzen, eta ez da Garain ikastaroa emango duen lehenengo aldia. Jardunaldian parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute aurretiaz. Antolatzaileek inprimaki bat prestatu dute horretarako. 15 euro ordaindu beharko dira izena emategaitik.

# PABILIOIA SALGAI

Iurretan, Mercadona ondoan

## 1.190m<sup>2</sup>

**ZARATE ELEXPE**

ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73  
Mug.: 649 40 26 23  
zarateyexpe.com

## Tabirako jaiak asteburuan

**Maialen Zuazubiskar** DURANGO  
Gaur arratsaldean Mugarra Triatloi Taldeko kideek jaurtiko duten txupinazoagaz emango diete hasiera Tabira auzoko jaietako Durangon. Bihar, esaterako, marmitako txapelketa eta kontzertuak egongo dira, domekan herri kirolak, eta astelehenean bertsolariak, besteak beste. Ekainaren 29an amaituko dira jaiak.



Tabira auzoko jaietako argazki bat.

### DURANGALDEA ASTEON

## Otxandion euskaraz irakasten mende erdia egin dutela ospatu dute asteburuan

**OTXANDIO** Euskaraz irakasten hasi zirela 50 urte bete izana ospatu zuten Otxandion, joan zen asteburuan. Inkernuz erein lelopean, ekintzen bateriko egitaraua osatu zuten. Egitarau horren barruan, omenaldia egin zieten ikastola sortzen lagundu zuten 50 pertsonari.



50 urte eskola euskalduntzen egon den lantaldea

## Pierres&Fils Frantziako taldea Zornotzako Haizetara Jaialdiko bandarik onena

**ZORNOTZA** Haizetara Lehiaketaren XIX. edizioa Pierres&Fils Frantziako taldeak irabazi du. 15.000 euroko saria eskuratu du. Barna Sabor Trubaca talde katalanak publikoaren saria eskuratu du, eta Super Panela hirukoteak instrumentistatik onenaren saria.

## Iturriagak eta Zabalak Batalla de Rande zeharkaldia osatu dute igerian

**DURANGO** Aitor Iturriaga eta Bittor Zabala durangarrek Vigoko itsasadarra igerian zeharkatzeko Batalla de Rande proba gogorra osatu dute, 27 kilometroko ibilbidea. Iturriagak 8 ordu eta 35 minutuan osatu zuen zeharkaldia, eta Zabalak 9 ordu eta 20 minutuan.



Aitor Iturriaga eta Bittor Zabala.

### GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta  
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa /  
/ Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

**Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).**

### POLITIKAN

## Mugikortasuneranzko urrats garrantzitsua



**CARLOS GARCIA**  
PP

Durangoko Udalak egindako herri-kontsultan %90,6ko babesalortu eta gero, Alderdi Popularrak bultzatutako DurangoBusaren proba pilotua uda honetan abian jarriko da.

Zerbitzuak Aramotz edo San Faustoko auzoak erdigunearekin lotuko dauz, batez be adinekoak eta mugikortasun mugatua dabena kontuan hartuta.

Proba uztailearen 1etik 31ra izango da, Tabirako igerilekuen irekierarekin batera, 75 plazako autobus batez (49 eserita, 29 zutik eta 2 gurgil-aulkientzat), 13 geltokiko ibilbide zirkulararekin, 30-40 minutuko maiztasunaz eta astelehenean ostiralera, 11:00etatik 21:00etara.

## "Proba uztailearen 1etik 31ra izango da, 75 plazako autobus batez"

Probako emaitzak onak badira, hiru fasetan garatzea planteatzen da: hasierako behin betiko ezarpena, urtero zerbitzu osora hedatzea, eta hirugarren fasean DurangoBus Iurretako eta Abadiño-ko udalerrietan be jartzea, Foru Aldundiaren laguntzarekin. Hiru udalerrietako ia 50.000 bizilaguni eta Durangaldeko 100.000 inguru biztanleri ekarriko die onura.

## anboto

### ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 lurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902



### Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

### Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

### Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

### Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

### Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Maialen Zuazubiskar  
Gallastegi, Aritz Maldonado  
Zabala.

### Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

### Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

### Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



### LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko  
Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika  
eta Kultura Sailak diruz lagundua





# ZALDIBARKO JAIK 2026



Zaldibar  
Elizateko  
Udala

**Gozatu Zaldibarko jaiak.  
GORA ZALDIBARKO JAIK!**

**Zal  
di  
bar**

# ZALDIBARKO JAIEN EGITARAUA

## 26 · 27 · 28 EKAINA

- XXXIV. areto-futbol maratona kiroldegian.

## 27 EKAINA

- 17:00-20:00 Ekitaldiak rokodromoan herritar guztientzat.

## 28 EKAINA

- 08:30-14:30 XLII. argazki rallya liburutegi zaharrear.

## 2 UZTAILA

- 18:00 Herrixen Jaixen jaitsiera Zaldia plazatik.
- 18:30 Donien Atxa.
- 18:45 Zaldibarko dantzariak; jarraian, Hamadako Izarrak jaien hasiera iragartzeko txapligua jaurtiko du, eta gero buruhandiak.
- 19:30 MATRAKA elektrotzaranga, txosnagunetik hasita.
- 20:00 Odoloste-jana Bekoetxe kalean.
- 22:30 DJak txosnagunear:
  - Agata Lagata
  - Lander Luque.
- 03:00 Motortxo lasterketa txosnagunear.

## 3 UZTAILA

- 08:30 Familientzako mendi irteera udaletxeko plazan hasita. Amaitzean, mokadua egongo da eskoletako pilotalekuan.
- 09:00-13:00 Umeentzako ginkana kiroldegian.
- 12:30 Herri kirolak Zaldia plazan, aizkolariak eta Iparraldeko jokoak.
- 17:00 Bits festa udaletxeko plazan.
- 18:00-20:00 Arku-tiroa; punteriazko jokoak ume eta helduentzat. Olazarko galerian.

## 4 UZTAILA

- 10:30 3X3 Haur saskibalo txapelketa kiroldegian.
- 11:00 JAIZALE Durangaldeko txistulari elkartearen kalejira.
- 12:00 Tortilla txapelketa eskolako aterpean.
- 14:30 Herri bazkaria txosnagunear.

- 16:00 NEBAR-en eskutik kontzertu akustikoa txosnagunear.
- 17:00 3X3 saskibalo txapelketa kiroldegian.
- 19:00 Afari-merienda Olea kalean, solomoa eta sardinak.
- 19:00 GOTX elektrotzaranga, txosnagunetik hasita.
- 23:00 ALTXAPORRU taldeagaz erromeria txosnagunear.
- 23:00 DJ CANIJO Olea kalean.

## 5 UZTAILA

- 11:00 JAIZALE Durangaldeko txistulari elkartearen kalejira.
- 11:00-13:00 eta 16:00-19:00 Umeen jolas parkea eskolako patioan (euria eginez gero kiroldegian).
- 11:00 Zaldibarko Korakal mezan abestuko du San Andres elizan, eta ondoren kontzertua emango du.
- 12:00 Euskal dantzak Zaldia plazan.

- 19:00 Bertso saioa, Zaldia plazan: Xabat Illarregi, Aitor Etxebarriazarraga, Saioa Alkaiza eta Unai Iturriaga. Gai-jartzailea: Leire Vargas.
- 20:30 MARKELIÑE mimo taldearen 'ARTILUSIO' kale antzerkia, udaletxeko plazan (euria eginez gero, Olazar pilotalekuan).
- 22:00 Jaietako argazkien emanaldia kontzertuen eszenatokian.
- 23:00 Su artifizialak.

## 9 UZTAILA

- 19:00 Argazki rallyaren emanaldia eta sari banaketa liburutegi zaharrear.

## 11 UZTAILA

- IV. Zaldutrail mendi lasterketa:
- 09:30 lasterketa luzearen hasiera.
- 09:45 lasterketa laburraren hasiera.



SUKENA

**ZALDIBAR Kontzertua** Oñatiko Sukena taldeak kontzertua emango du Zaldibarko jaien barruan. Streetwise talde iruindarragaz eta Xaukena Xauk talde zaldibartarragaz partekatuko dute oholtza. Txosnagunear, uztailearen 3an, 22:30ean.



**Begoña Albisua Uribarri**

Abokatua

Zaldia-Solo plaza, 4 behea  
48250 Zaldibar

Mob.: 656 702 012

e-maila: balbisua@outlook.es



ELECTRICIDAD  
**EGUZKI, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA

Arzubia, 10 Apdo.115  
48220 MATIENA - ABADIÑO

eguzki@elecheguzki.es

689 709 602 Jobi

946 815 201



Euskal Herria  
etorbidea, 8  
ZALDIBAR

**SIKULAN**

Cutting Tool Technologies

WWW.SIKULAN.COM

KASU BAKDITZERAKO  
SOLUZIO EGOKIENA



C/ Zubiaurre 5 - E-48250 Zaldibar - Bizkaia  
Tel. 94 662 74 76 - sikulan@sikulan.com



## Gastronomiak, musikak eta tradizioak bat egingo dute Zaldibarren uztailaren 2tik 5era

Sukena, Streewise eta Xaukena Xauk taldeek kontzertua emango dute



lazko herri bazkariko irudi bat. LUCIA MERUELO

### A.B. ZALDIBAR

Jai giroan murgiltzeko atzerako kontaketa hasi dute Zaldibarren. Uztailaren 2an txupinazoa botatzeagaz batera egingo du ez-tanda jaiak, eta gastronomiak, musikak zein tradizioak bat

egingo dute herriko kaleetan. Hartara, tradizio handiko ekitaldiek ez dute hutsik egingo; hala nola Olea kaleko solomo eta sardina-janak eta Bekoetxe kaleko odoloste-janak. Ekitaldi jendetsu horiekin batera, urte-

rik urte indarra hartu duten tortilla txapelketa eta herri bazkaria ere egingo dira. Kale animazioak ere ez du hutsik egingo. Matraka, Elektrotxufla eta Gotx elektrotxarangek hartuko dute horren ardura.

Zaldibarko jaiak musika eskaintza zabalagaz datoz aurtten. Jai batzordeak jakinarazi duenez, Altza Porrú erromeria taldea, Nebar talde akustikoa, eta Sukena, Streetwise eta Xaukena Xauk rock taldeak igoko dira txosnaguneko oholtzara. Ordu txikiak arteko parranda, bestalde, hainbat musika jartzailek bermatuko dute.

### Bertsokak eta antzerkia

Bertsolariek eta antzerkiak borobilduko dute kultur eskaintza. Punta-puntako bertsolariak egongo dira, uztailaren 5ean, Zaldia plazan, Leire Vargas gai jartzailearen esanetara: Xabat Illarregi, Aitor Etxebarriazarraga, Saioa Alkaiza eta Unai Iturriaga. Bestalde, Markeliñe antzerki konpainia zornotzarrak *Artiusio* kale ikuskizuna egingo du, udaletzeko plazan. Itziar Fragua, Fernando Barado eta Maite Bayon antzezleek fantasiazko mundu magiko batera murgiltzera gonbidatuko dute ikuslea. Hain zuzen ere, Greta adineko emakume maitagarri eta irakurzaleak eraikitako munduan. Gretak liburuak ditu pasio, eta alboan duen makina

erraldoia ere liburu horiekin elikatzen da. Gretaren bihotz taupadak eta makina sinkronizatuta daude, fantasiazko mundu bat eraikiz, pertsonaia eta testuinguru propioekin.

Kiroliek ere ez da faltako Zaldibarko jaietan: besteak beste, areto-futbol maratonia jokatuko da ekainaren 26tik 28ra, eta herri-kirolen erakustaldia egongo da, uztailaren 3an. 3x3 saskibaloia eta pilota partidak ere antolatuta dira; XXXVIII. Etorkezuneko Olazar Txapelketa jokatuko dute. Etxeko txikienek, berriz, ginkana, puzgarriak eta apar festa izango dituzte zain, uztailaren 3an.

### Errespetuz jokatzeko deia

Udalak eta Jai Batzordeak erantzukizunez jokatzeko deia egin dute. Eneritz Azpitarte alkateak eta herriko eragile feministek argi utzi dute: "Zaldibar indarkeria matxista eta erasorik gabeko herria izatea nahi dugu. Ez dugu inolako erasorik onartuko". Jaiak askatasunean eta errespetuz bizitzeko mezua zabaldu dute mezu argi batekin: "Erasotzaileek ez dute lekurik gure artean".

**ZUBIZARRETA**  
**ABOKATUAK**  
Finken Administrazioa  
Ahoikularitza eta Gestoria  
Higiezinen Kudeaketa

Solonagusia 1, behea ezk. 48250, ZALDIBAR  
**T.: 946 050 887**  
abogados@szubizarreta.com

**OSTARGI**  
**BERRIA**

94 682 69 50

**ACHA-ORBEA EGANA**  
Y CIA, S.A.

Foru kalea, 1  
48250 ZALDIBAR  
946 826 666 - tools@aoc-sa.com

Since 1945  
**80 years**

**BARIKUTIK**  
**DOMEKARA**  
**BOKATAK**  
**HERRIKOAN!**

Independentziarako indarra  
Castet

**IMENDIA**

- Fotokopiak
- Prentsa salmenta
- Gozokiak

Tel./Faxa: 946 827 413  
Zalduasolo E.7 · ZALDIBAR

**Karobi**  
TABERNA

Zalduasolo plaza, 2  
48250 Zaldibar  
Tel.: 654 619 644

**Ibon Padilla Ibarra**  
Naturopata kolegiatu zik. 4707

**ZUTITU ZENTROA**

N.O.F (Blay metodoa) · OSTEOPATIA ·  
KIROL TRATAMENDUA ·  
KIROMASAJEA · AKUPUNTURA ·  
SOINU TERAPIA · NESA XSIGNAL

Santa Isabel 2, behea - Zaldibar  
AURRETIKO HITZORDUA 618 614 972

1955an sortua  
**GALLASTEGI**  
harategiak

**ZALDIBAR**  
Zalduasolo, 8  
946 827 038

**DURANGO**  
Antso Estegiz Zumardia, 1  
946 812 247

gallastegiharategiak.eus

# "Txupinazoa botatzea aukera ezin hobea da Zaldibarko herriari eskerrak emateko"

GARAZI ETXEBARRIA ETA IZARO ETXEBARRIA HAMADAKO IZARRAK ELKARTEA

**E.H./A.B.** ZALDIBAR

Hamadako Izarrak elkarteko ordezkariak eta ume sahararrak igoko dira aurten udaletxeko balkoira herriko jaietako txupinazoa botatzera, uztailearen 2an. Jai batzordeak elkartearen lana saritu gura izan du; urtero Saharako ume errefuxiatuak hartzen dituzte harreran eta Oporrak Bakean programagaz bat egiten dute, umeak Olazarren aterpetuta.

**Zelan jaso duzue txupinazoa botatzeko gonbidapena?**

**Izaro Etxebarria:** Bai, halaxe da. Gainera, ez genuen espero, ez gara-eta zaldibartarrak.

**Garazi Etxebarria:** Aldi berean, Zaldibarko herriari eskerrak emateko aukera ezin hobea ere bada. Zaldibar beti izan da harrera herri ona.

**Noiz jaio zen Hamadako Izarrak elkartea?**

**G.E.:** 2015ean, eta 10 urte dira ume sahararrak ekartzen ditugula. Harreran ekarritako hiru garren ume taldearen azkena izango da hau, bosgarrena.

**I.E.:** 12 urte egingo dituzte eta kanpamentuetatik irteteko azken aukera dute.

**G.E.:** Aterpetxe formatuan egingo dugun azkena ere izango da. **Aurrerantzean, zein bideri jarraituko diozue?**

**I.E.:** Ez dugu zehaztuta. Baina asmoa da Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan bertan ere zenbait proiektu garatzea. Etapa bat amaitu dugu, baina elkarteak lanean jarraituko du.

**G.E.:** Han daude beharizan nagusiak. Aurtengoa urte berezia izango da, eta gogorra aldi berean. Datozen umeen azken urtea izango da eta normalean gogorra egiten zaie; gainera, aterpetxe formatuan egingo dugun azken

urtea izango dugu, eta hasieratik gugaz aritu diren hezitzaile askoren azken urtea.

**Kontrako sentimenduak dituzue?**

**G.E.:** Sentimendu gazi-gozoa dugu. Denon egoera pertsonala aldatu da eta ezin dugu orain arteko formatuan jarraitu. Etapa ondo amaitzeko moduan gaudela ikusita hartu dugu erabakia. Zaldibarren lau urte egingo ditugu aterpetxe legez.

**Zelan hartu zaituzte Zaldibarren?**

**I.E.:** Oso gustura gaude.

**G.E.:** Hasieratik erraztasun guztiak eman dizkigute, bai herritarrek bai udalak.

**Zein da emango duzuen mezua?**

**G.E.:** Umeak izango dira protagonista, hango arazo politiko baten ondorioz euren herrialdetik irteteko premia duten umeak. Saharan errefuxiatuen kanpamentu bat dagoela gogoraraztea da gure lana.



Hamadako Izarrak elkarteko arduradunak.



Aljeriako errefuxiatuen kanpalekuetatik ailegaturiko ume sahararrak, Olazarren.

**MUELLES ZALDUA S.L.**

**MALGUEN FABRIKAZIOA OROKORREAN**

Tel.: 946 827 801 - Faxa.: 946 827 654  
San Andres etorbidea, 1  
48250 ZALDIBAR  
info@muelleszaldua.com  
www.muelleszaldua.com

**MDP**

**MECANIZADO DE PRECISIÓN**

Solozabal Pab. 35  
48250 Zaldibar - Bizkaia  
Tel.: 946 827 332  
Faxa 946 827 221  
info@mecanizadodeprecision.com  
www.mecanizadodeprecision.com

**PAULAREN ZOKOA**

**KAFE**

07:00etatik aurrera zabalik

Euskal Herria, 18  
946 550 481 - Zaldibar

Paularen Zokoa

**José David Espinosa Gonzalez**

**LEUNKETAK eta BERNIZADURAK**

**OHOLTZA BERRIAK ETA ERABILITAKOAK**  
**PARKET EZARPENAK, OHOL ETA BALDOSA GAINEAN**

Tel. 94 684 25 17  
Mugikorra (Jose David) 687 537 732  
jose.pinky@yahoo.com

Artikas Auzoa, 26 - 48288 Ispaster  
San Andres Etorbidea 30, 1ºD- 48250 Zaldibar

**kikili**

amalabe jarraitu

Euskal Herria Etorbidea, 30  
Zaldibar  
Tel.: 946 047 733

kikilizaldibar

**BARATZA**

FRUTADENDA URDAITEGIA

Sta. Isabel, 2 behea  
Tel.: 946 225 063  
Zaldibar, Bizkaia

ARTEA

# "Saiakera idatzi barik, Oteiza ezagutu zuten 36 lagunen iritziak bildu ditut"

JOSE JULIAN BAKEDANO IDAZLEA

Bakedanok Oteizari buruz kaleratu berri duen liburua aurkeztuko du Durangoko Arte eta Historia Museoa, ekainaren 30ean, Mikel Onandiagaz batera

Jone Guenetxea DURANGO

Jorge Oteizaren miresle sutsua izanda, artista ezagun honi buruzko biografia idazteko enkargua oparia izan da Jose Julian Bakedanorentzat. *Para conocer a Oteiza* liburuan, artista ezagutu zuten 36 pertsona esanguratsuren lekukotzak jaso ditu, baita haren hainbat argazki ere. **Zelan bururatu zitzaizun lekukotzak batuta Jorge Oteizaren irudia marraztea?**

Dibulgaziozko saiakera bat nik neuk idatzi beharrean, Oteizagaz hartu-eman izan zuten 36 pertsonaren iritziak biltzea bururatu zitzaidan. Horrela, Pamiela argitaletxearen *Lo que sabemos de...* bildumarako liburua idatzi dut. Egile bakoitzak eskultorearen alderdi bat lantzen du. Izan ere, Oteiza oso garrantzitsua izan zen poeta legez, baina baita arkitekto eta eskultore legez ere. Batez ere eskultore legez. Oteizaren dena bere eskulturatik abiatzen da. Bestalde, dagoeneko badira hiru biografia konbentzional, sarrean aipatzen dutan moduan, bibliografian jasota daudenak. Eta uste dut Oteizari buruzko beste saiakera bat gehiegizkoa izango zela. Bereziki, Pelayo Orozcok 1978an idatzitako liburua dago.

**Bakoitzak modu desberdinean ipini du bere alea?**

Lau alderdi garrantzitsu daude. Pertsona batek gerra aurreko Oteizari buruz berba egiten du, Hego Amerikako garaikoak. Beste batek Madrilen bizi izan zen garaiaz. Beste batek Bilbon bizi izan zen garaiaz. Eta beste batek Irunen bizi izan zen garaiaz. Hori guztia ez da inoiz liburu batean bildu; hauxe da egiten den lehenengo aldia. **Zertan dira berdinarak hain arlo desberdinetako pertsona horiek?**

Denek Oteiza ezagutu izana funtsezko alderdia da. Denek izan zuten haren eragina, eta estimu handia diote. Ez dut inoren kritika negatiborik jaso. Adibidez, Miguel Sánchez-Ostizek poetaren ikuspegitik berba egiten du hari buruz. Beste batzuek arkitekto ikuspegitik. Beste batzuek, logikoki, Badiolak kasu, eskultore legez. Paulino Viotak, oster, zinemagile legez.

**Eskultorea izateaz harago, Oteiza intelektuala zen.**

1958an eskultura utzi zuen. Bere ikerketa artistikoa amaitutzat eman zuen, nahiz eta hori ez den guztiz egia; gero ere jarraitu zuen gauzak egiten; *Tizen Laborategia*, esate baterako. Baina gero kultur aktibista izateari ekin zion. Adibidez, berak ipini zion izena Ez Dok Amairu taldeari. Mikel Laboa kontsulta egitera joan zitzaion eta Oteizak honela erantzun zion: "Jarri Ez Dok Amairu". Zuberoako kanta baten izena da, eta hauxe esan gura du: «Ez gara hamahiru, infinituak gara». Ez Dok Amairu Jorgeren ideia izan zen.

**Oteizaren umorea ere azpimarrazten da.**

**"Egile guztiek ezagutu zuten Oteiza; haren eragina izan zuten eta estimu handia zioten"**

**"Oteiza ezagutu gura duenak Durangoko Museora joan beharko luke, eta erakusketa ikusi"**

Gabriel Blancok esaten zuen Oteiza umorista zela funtsean. **Lekukotzez gainera, oso argazki bereziak ere badaude liburuan.**

Argazkiek eman didate lanik gehien; izan ere, Oteiza Museoa ikertzen aritu naiz, familiaren argazkiak aztertzen, bere iloba Pilarrenak, eta beste bildumagile pribatu batzuenak ere bai. Kostatu egin zait 190 argazki biltzea. Ez dira Jorgeren argazki tipikoak.

**Lan hau guzti hau egin ondoren, esango zenuke gehiago hurbildu zarela Oteizarengana?**

Niretzat poz handia izan da, asko ikasi baitut. Lehendik ere asko nekien, pertsonalki ezagutu bainuen eta haren obra gaztetatik ezagutu bainuen —15 urte nituela irakurri nuen *Quosque tandem!*—. Ordutik Jorgeren arrastoari jarraitu diot, eta hartu-eman ere izan nuen beragaz.

Kontatzen dutan azken pasadizoa da hil aurretik Bilboko museora etorri zitzaidalda bisitan, eta esan zidala: "Bidaiara noa". Galdetu nion: "Nora zoaz? Greziara?". Eta hark erantzun zidan: "Ez, ez. Hiltzera noa. Lagunei agur esatera noa, eta hil egingo naiz". Orduan, museoan sartu ginen. Hura izan zen ikusi nuen azken aldia.

**Durangoko Museoak Oteizaren inguruan duen erakusketak eta argitaratu berri duzun lanak bat egin dute. Zer iruditzen zaizu erakusketa berezi hau?**

Bikaina iruditu zait, sei eskultura eta hamahiru collage baititu. Eskulturak ospetsuagoak dira, baina oso ondo aukerata daude, eta Jorgeren ibilbide eskultoriko osoa oso modu sinplean erakusten dute. Gainera, 1978an Bilbon egin genuen erakusketa handi baten aurrekaria da; Txomin Badiolak egin



Jose Julian Bakedano.

zuen, eta *Propósito Experimental* zuen izena. Beraz, norbaitek Oteiza ezagutu gura badu, Durangoko Museora joan beharko luke eta erakusketa hau ikusi; izan ere, Jorgeren ibilbide osoa modu sakon eta sintetikoan azaltzen du.

**Ekainaren 30ean Durangoko Arte eta Historia Museoa aurkeztuko duzu liburua. Zelan prestatu duzu ekitaldi hori?**

Liburuan parte hartu duen Mikel Onandiagaz batera aurkeztuko dut. Oso interesgarria izango da, Jorgeren ibilbideaz eta bizitzaz berba egingo baitugu. Proiektatuko ditugun argazkien hautaketa bat egin dugu, eta liburuan idatzi duten pertsonen inguruan ere berba egingo dugu. Beraz, liburuaren edukia oso ondo azalduko dugu, eta uste dut aurkezpena oso esanguratsua izango dela.

**Beste data esanguratsu bat Museoaren 40. urteurrena da.**

Jakina, ni sortzaileetarikoa bat izan nintzen. Bizirik dagoen sortzaile bakarra naiz. Beste guztiak hil dira; neu nintzen gazteena. Eguenean ospatu zen 40. urteurrena. Pozik nago museo hori, egitea asko kostatu zitzaiguna, oraindino hor dagoelako. Bereziki Leopoldo Zugaza sortzaileagaz batera, asko kostatu zitzaigun bilduma osatzea. Eta bilduma zoragarria da: euskal arte garaikidearen bilduma iraunkorra. Durangorentzat oso museo egokia da. Gainera, maila handiko erakusketak egiten dira: Chillidarena, Picassoren grabatuena, Regoyosena, eta beste artista batzuen ere bai, agian hain ospetsuak ez diren arren. Baina beti kalitate handiz eta tokikoari zein Euskal Herri osoari lotutako interesa agertuta.

ARTEA

## "Pedagogikoki zein artista legez, denok garela sortzeko gai erakutsi gura dut"

ALAITZ MURO LARIZGOITIA SORTZAILEA, PEDAGOGOA ETA ARTETERAPEUTA

**Aritz Maldonado** DURANGO

Alaitz Muro durangarrak eta Beñat Achiary abeslariak Jorge Oteizari buruzko solasaldi bat proposatuko dute uztailearen 2an Benita Uribarrena parkean egingo duten *Hutsune iturri* performancean. Bertaraten direnek soinuaren, kolorearen eta gorputzaren arteko saiakera poetikoa ikusteko aukera izango dute. Emanaldia 18:00etan hasiko da. "Obrak bizirik ikusteko aukera bat izango da", azaldu du.

**'Hutsune iturri' saioak asko izango du inprobisaziotik. Hala ere, eman-gio diguzu azalpenen bat irakurlea kokatzeko?**

Espazio-denbora esperimentatzeko dimentsio anizkoitza planteatuko dugu, ukigarria dena gaingaitu eta ikusezinaren lurraldeagaz konektatzeko. Prozesu bizi eta organiko baten bitartez, inkontzientearen espazioan mobilizatzen dena gauzatzea da helburua, euskal arimaren identitate-ezaugarriak gordetzen dituen memoria kolektiboaren zati bat gogora ekartzeko.

**Lehenengo aldia duzu Beñategaz?**

Bai, sorkuntza berezia izango da, eta niretzat paregabea Beña-

ten moduko abeslari bategaz elkarlanean sortzea. Durangon egin ahal izatea, gainera, luxua da. Aspaldian Zuberoan esperimentatzen dabiltza eta hori ekartzera ere bagatoz.

**Ez gaude ohituta prozesu sortzeai-leak ikustera.**

Sarri, ikusten duguna prozesuaren azken emaitza da, baina horra ailegatu arteko dena galtzen dugu. Hain zuzen ere, horixe izango da gure proposamena: nola sartzen garen prozesu batean, eta bertan esperimentatzen duguna. Izan ere, horrek elikatzen zaitu artista legez; oso baliotsua da eta obrak eurak ulertzen ere laguntzen du. Gero, gehiago edo gutxiago gustatuko zaizu obra, baina lagungarria da ikusteko artista zelan ailegatu den horra. Eta hori bizi ahal izatea aukera itzela da. Gurea, gainera, performance bat da, ez antezlan bat, eta, beraz, ez dakigu nora helduko garen. Hori ere oso polita da, benetako prozesu bat biziko dugulako. Ikuslea bera prozesuaren parte izango da, bertan egonda.

**Durangar legez, ilusioa egiten dizu bertan egiteak?**

Bai, jakina! Aurretik ere egonikoa naiz beste berbaldi batzuk ematen, arte feministaren inguruan, adibidez. Giovanni Battista Piranesiren *Roma imaginada* erakusketaren harira, tailer bat ere eman nuen. Normalean, ideia beraren inguruan aritzen naiz, zelan eta zergaitik ailegatu den pertsona bat sortzen duena sortzera. Tailer horretan ikusi genuen, adibidez, nondik sortu zuen Piranesik, eta, hortik abiatuta, parte hartzaileek euren sortzeko gaitasunagaz jolastea gura izaten dut. Nire proposamena, bai modu pedagogikoan eta baita artista legez ere, denok garela sortzeko gai erakustea da. Beste gauza bat da sorkuntza horregaz zer egiten den erabakitzea, baina denok gara sortzeko gai. Prozesu hori bizi ahal izatea aukera

**"Sarri, amaituta ikusten ditugu obrak; honetan, prozesua ikusteko aukera egongo da"**



Alaitz Muro Larizgoitia.

bat da, eta performance honegaz ere horixe erakutsi gura dugu, denok dugula prozesua bizitzeko aukera. Agian, etxean sortuko duzu, txoko batean eta zuretzat, baina denok dugu sortzeko gaitasuna.

Denok gara sortzeko gai, baina badago garai bat, eskola sasoiaren, hori moztu egiten dena. Sortzeko bide bakarra dagoela dirudi hor, emaitzari begirakoa. Eta emaitzatik urrunduz gero, askeagoak gara sortzeko. Horregaitik da hain garrantzitsua horrelako prozesuak erakustea

eta bizitzeko aukera izatea. Hori berreskuratu gura dugu. Azken emaitza ez da hain garrantzitsua. Gero, hori erre, gorde, saldu edo erakutsi egin dezakezu, baina bizitakoa da geratzen dena. Horretan oinarritzen gara gero artistak. Prozesu hori erakustea zeozer mugituko dio ikusleari barruan. Gustatuko litzaidake bertaraten den ikusleak prozesua ikusita, berak ere probatu dezakeela konturatzea, bere gustu edo baldintzen arabera, jakina.

### GAI LIBREAN



**AINHOA OLASO SOPELANA**  
BEHARGINA

## Ispilu bat udaletxe parean

Artekaleko taberna txikiaren atarian geunden udako gau hartan. Garagardo freskoa eta platano frijitu apurra atzamarretan. Kalearen hondotik zelan geneukan *Correos* eraikin zaharra. Honegatik eta hargatik, luze jo zuen postetxearen inguruko berbaldiak. Musuzapietan gorde genituen zirriborroak. Tamalez, ez da exajeratua esatea, orduko mundu erreala, zientzia-fikziozko batekin ordezkaturia izan dela.

Herria desitxuratu zaigu. Hori ez ikustea saihetsezina da. Gobernadoreek ideal ugari desegin dituzte. Erabakietan ez dute zentzua bilatzen. Zuhurtasunik ere ez. Berdin zaie tren geltoki historiko bat eraitsi ala urteetan zaindu gabeko jauregiak astiro-astiro erortzen uztea. Ez dute uste ondareak eta istorioek denboran iraun dezaketarik.

**"Herria desitxuratu zaigu. Hori ez ikustea saihetsezina da"**

**"Eta ispiluko islak errealitatetik kanpoko gauzak egingo balitu?"**

Miloi eta erdi eurotako diru laguntza bati uko egin, ondoren uko egite horrek inplikatu dituen interesak ordaindu eta herrian kultur etxe bat izateko aukera albo batera utzi da legegintzaldi honetan. Zaila litzateke nahita ere honaino ailegatzeko. Baina orain, postetxearen eraikin zaharra bota eta "*udaletxea islatuko duen akabera*" emango zaio plazan agerian geratuko den paretari.

Alferrik nekatu gara literaturan, diseinu aldizkarietan, korrespondentzietan eta bidaia-memoriatan bilatzen: inon ez da halako tonu parodikorik ageri.

Eta agian, errealitatea bera baino errealagoa balitz bezala onartu dugu. Jada ez daukagu platano frijitu apurrik atzamarretan, ezta laguntza nahikorik herri ekimenentzat. Baina ametsak eta ispiluak ez ziren isla egin eta harrokeria banatzeko bakarrik sortu.

# INMOBILIARIAK

 <p>ETXETXO INMOBILIARIA F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO www.inmoetxetxo.com</p>	 <p>AMBOTO INMOBILIARIA Sanagustinalde, 4 - 1.ºz. - 48200 DURANGO</p>	 <p>ISD Inmobiliaria del Duranguesado Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666 www.inmoduranguesado.com inmoduranguesado@gmail.com</p>	 <p>AGENCIA INMOBILIARIA Fernando Uribe Barrerikalea, 15 behe - DURANGO Tel: 946 816 423 - www.fernandouribe.es</p>
<p><b>ERAIKUNTZA BERRIA</b> <b>AZOKA BERRI</b> 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. 376.000 € -tik aurrera. <b>ARANDONOTORRE</b> Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. C.E.E=B.</p> <p><b>AUKERA</b> <b>IURRETA</b> 3 logela, komunak, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. C.E.E=F 140.000 € <b>GARAI</b> 2.759 m2-ko lursaila. Lursail eraikigarria. 240.000 €. <b>SAN INAZIO</b> Garajea. 11.000 €. <b>ALLUITZ</b> Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehiua 2 kaletara. 110.000 €.</p> <p><b>ETXEBIZITZAK SALGAI</b> <b>ARTEKALEA</b> 90 m2. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 balkoi. Berriztatua. C.E.E=E 244.000 €. <b>EZKURDI</b> 88 m2. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Trastelekua. C.E.E=F 255.000 €. <b>SAN INAZIO</b> 104m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara eta garajea. CEE=E. 330.000 € <b>KOMENTUKALE</b> 125m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukalde-garbitegia. Terraza. C. EE.=G. 298.000 € <b>EZKURDI</b> 101m2. 3 logela eta sukalde-egongela. Ganbara. C.E.E= F. 319.500 € <b>MAÑARIA:</b> 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ikuspegiak. C.E.E=E 250.000 €. <b>BASERRIA, ZORNOTZA</b> Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. 470.000 €. C.E.E=F <b>MUNTSARATZ</b> Baserría. 670 m2. Familiabakarrekoa. 500 m2-ko lursailarekin. C.E.E=F 525.000 €.</p> <p><b>LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI</b> <b>IZURTZA:</b> Pabilioia. 261 m2. 261 m<sup>2</sup>-ko solairuartea. Egokitua. 195.000 €. <b>MURUETA TORRE</b> 44 m2. Kearentzako irteera. 50.000 € <b>ASKATASUN ETORBIDEA</b> 60m2. Lokal egokitua.. 125.000 € <b>MATIENA</b> Trañabarren. 60m2.Salgai. etxebizitza egiteko aukera. 70.000 € <b>DURANGO</b> 100m2. Lokala. Alde zaharrea. Egokitua. 115.000 € <b>MASPE</b> 150m2. Lokala. 90.000 € <b>KOMENTUKALE</b> 100m2. Lokala. Egokitua. 160.000 € <b>IURRETA</b> (Bixente Kapanaga). 117m2. Lokala. 75.000 € <b>ASTEPE</b> 40m2.Lokala. egokitua. 70.000 € <b>URKIOLA</b> 120 m2. Egokitua. Alokairuan. 650 € <b>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA</b> 80 m2. Egokitua. Alokairuan. 1.350 €. <b>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA</b> 180 m2. Egokitua. Erakuslehiua. Alokairuan. 2.900 €. <b>DURANGO</b> Bulegoa. Erdialdean. 1.go solairua. 650 €.</p> <p><b>GARAJEAK SALGAI</b> <b>ALLUITZ</b> Garajea. Salgai. 15.000 € / Alokairuan 65 € <b>MENDIZABAL</b> Garaje itxia. 25.000 €. <b>ASKATASUN ETORBIDEA</b> Garaje itxia. 20.000 €.</p>	<p><b>ETXEBIZITZAK SALGAI</b> <b>DURANGO</b> <b>ZUMALAKARREGI</b> 235 m2. Durango erdigunean. Zoragarria. <b>MONTEBIDEO</b> Berriztatuko. 175m2, 6. solairuan. Balkoia. 60 m2, 7. solairuan. Ikuspegi ederrak. <b>MONTEBIDEO</b> 150 m2. 4 logela. Handia. 2 kobxerentzako garaje itxia. <b>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA</b> 180 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. 3 balkoi. Berriztatuko. <b>FRANTZISKO IBARRA</b> 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia. <b>GOIENKALEA</b> 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. <b>GOIENKALEA</b> 2. solairua. Halla, 3 logela, sukaldea, 2 komun eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. <b>BARRENKALEA</b> Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.</p> <p><b>LURSAILAK SALGAI</b> <b>URRUTXUA</b> 9 hektareako 2 baso salgai. Errepedearen ondoan.</p> <p><b>BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI</b> <b>IURRETA</b> Fauste auzoa. Bifamiliarra. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua. Prezio ezin hobea. <b>IURRETA</b> Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatuko. <b>ABADIÑO</b> Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara. <b>BERRIZ</b> Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz. <b>MAÑARIA</b> 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.</p> <p><b>BULEGOAK ALOKAIRUAN</b> <b>ABADIÑO</b> 30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.</p> <p><b>DURANGO</b> <b>ERMODO KALEAN</b> 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.</p> <p><b>LOKALAK ALOKAIRUAN</b> <b>DURANGO</b> Lekker taberna alokatzen da. 100 m2. 40 m2-ko jantokia, sukaldea, komunak. Zure negozioarako aproposa. <b>ALDE ZAHARREAN</b>, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.</p> <p><b>LOKAL INDUSTRIALA SALGAI</b> <b>MATIENA</b> 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia. <b>ELORRIO</b> 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.</p> <p><b>LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI</b> <b>BERRIZ</b> <b>BERRIZ</b> Eitua industrialdea. 600 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepede ondoan. Leku onean kokatua.</p>	<p> C. E. E. Bidean. 255.000€.</p> <p><b>DURANGO: EZKURDI:</b> 76 m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna bainuontziarekin. Balkoia. Egoera onean baina berrikuntzak behar ditu. Etxe erdiak kanpora ematen du. Pisu altua eta argitsua. Erdigunean. 8 m2-ko trastelekua. ITEa (fatxada eta teilatua) jabetzak dagoeneko ordainduta dauka.</p> <p> C. E. E. E. 335.000€.</p> <p><b>DURANGO: ASTEPE:</b> 83m2. Halla, sukalde-egongela jantzia, 3 logela horma-armairuekin, 2 komun, eskegitokia eta miradorea. Etxe osoak kanpora ematen du, argitsua eta egoera onean. Garajea eta trastelekua. Zonalde berdez eta zerbitzuzunetik gertu.ITE-a pasatutakoa.</p> <p> C.E.E.=G 210.000 €.</p> <p><b>IURRETA: BIXENTE KAPANAGA:</b> 94 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegiak. ITE-a pasatutakoa.</p> <p> C.E.E.=E 164.000 €</p> <p><b>ABADIÑO: SAN TROKAZ:</b> 33,65 m2. Egongela-sukaldea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna duxarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du ( hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.</p> <p> C.E.E=G 224.000 €</p> <p><b>MAÑARIA: ANDRA MARI:</b> 67,52 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna duxarekin. 2 balkoi. Egoera onean. Aparkatzeko erraztasuna. 20 m<sup>2</sup>-ko txokoa du, guztiz jantzia eta komunarekin, apartamentu bihurtzeko aukerarekin. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu hobekuntzarik behar.</p>	<p><b>DURANGO</b> <b>ANDRA MARI:</b> 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 €/ E.E.Z=E igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €. <b>BARRENKALEA:</b> Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F <b>GOIENKALE KALEA:</b> Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F <b>SAN INAZIO AUZUNEA:</b> 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A <b>ZABALE KALEA:</b> 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua eta 2 kobxerentzako garajea. 375.000 €/ E.E.Z=E</p> <p><b>ABADIÑO</b> <b>DENDARIKOA:</b> Zaharberitzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €.</p> <p><b>ATXONDO</b> <b>ARTEKALEA, 13:</b> Konpontzeko baserría lursailarekin. 300.000 €.</p> <p><b>BERRIZ</b> Bidegain kalea: Duplexa. 3 logela, sukaldea, 2 egongela eta 3 komun. Terraza. Igogailua. 2 garaje eta trastelekua. 450.000 €/ E.E.Z=Bidean <b>MURGOITIO AUZOAK:</b> Berreraikitzeo baserría lurzoruagaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €.</p> <p><b>GARAI</b> <b>MOMOTIO AUZOA:</b> Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.</p> <p><b>IURRETA</b> <b>ZUBIAURRE:</b> 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. 198.000 € / E.E.Z=F</p> <p><b>GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGO</b> <b>ANTSO EZTEGIZ:</b> Garajea. 45 € / hilean. Motorrentzat egokia. <b>KURUTZIAGA:</b> garajea. 18.000 €. <b>KURUTZIAGA:</b> Garaje itxia 22.000 €. <b>MADALENOSTE:</b> Garaje itxia eta trastelekua. 42.000 €. <b>ALLUITZ KALEA:</b> Garaje itxia. 75 € hilean.</p> <p><b>LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGO</b> <b>ANDRA MARI KALEA:</b> 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E <b>BARANDIARAN KALEA:</b> 50 m2-ko lokala. 800 € hilean / E.E.Z=Bidean. <b>IBAIZABAL AUZUNEA:</b> 60 m2-ko lokala. 240.000 € / E.E.Z=E <b>KOMENTU KALEA:</b> 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. 55.000 € / E.E.Z=F <b>ZABALE KALEA:</b> 50 m2-ko lokala. 60.000 € / E.E.Z=F <b>ABADIÑO</b> <b>TXIÑURRISOLO:</b> 38 m2-ko lokala. 495 € hilean / E.E.Z=E <b>SAN ANDRES KALEA:</b> 11 m2-ko lokala. 40.000 € / E.E.Z=bidean. <b>ALIENDALDE:</b> 285 m2-ko pabilioia. 250.000 €. <b>IURRETA</b> <b>ZUBIAURRE:</b> 11 m2-ko lokala. 20.000 € negoziagarriak.</p> <p>Beste aukera batzuk bulegoan galdetu</p>

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO.  
946 232 523 / [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org)

## BARIKUA 26

- **DURANGO** Sanpedroak Txistulariak, 09:00etan. Txupinazoa: Mugarra triatlai taldea, 19:30ean. Tortilla-jana, 20:00etan. DJ Maratoia, 21:00etan. Tabiran.
- **DURANGO 'Ikusi makusi, Beittu'** Erakusketa. Ezkurdi aretoan, uztailaren 5era arte.
- **IURRETA Uxue Kerejeta** Kontzertua. Abadetxean, 20:00etan.
- **ZALDIBAR Sanpedroak** Umeentzako pintura eta marrazki lehiaketa, 18:00etan. Txokolate-jana, 19:00etan. Donien Atxa jasotzea, 19:30ean. Afaria, 21:00etan. Eitzagan.

## ZAPATUA 27

- **DURANGO Sanpedroak** Marmitako txapelketarako mahai banaketa, 09:00etan. Gazteentzako jolasak Kalakaren eskutik, 11:30ean. Lapikoen aurkezpena, 14:00etan (sariak, 15:30ean).

Mus, partxis, igel txapelketa (Ibaizabalen), 17:00etan. Mautitza txaranga, 18:00etan. Ainke taldea, 20:30ean. Reder taldea, 21:30ean. Errota taldea, 23:00etan. DJ Xaukena Xauk, 01:00etan. Tabira auzoan.

- **GARAI 'Ingurua zaintzen, osasuna hobetzen'** Sendabelarren ikastaroa, Mentxu Amunategik gidatuta. Otea-Loran (09:30-13:30).
- **IURRETA Zumeltzara bizikleta irteera** Txirindulari elkarte. Iurretan, 08:00etan.
- **ZALDIBAR Sanpedroak** Paella eta patata tortilla lehiaketak, 12:30ean. Aurkezpena, 14:00etan (sariak, 14:15ean). Herri bazkaria. Bolo jaurtiketa, 18:00etan. Bolo txapelketa, 19:30ean. Saiheski-jana, 20:00etan. Eitzagan.
- **ZORNOTZA Sanpedroak** Txupinazoa eta suziarik, 19:00etan. Hirugiharra eta sardinak. Gorka eta Hekthor trikitilariak, 21:00etan. DJ Zirkin, 22:00etan. Boroan.
- **ZORNOTZA Landaland** Udabari dantza taldea,

12:30ean. Food trucks (12:30-21:00). Rokodromoa (12:30-20:00). Egurrezko jolasak (12:30-20:00). Ipuin kontalaria, 12:30. Zornotxori banaketa eta oroigarri ekitaldia Anita Maravillasi, 13:15ean. Mikel Urdangarin, 13:30ean. Ipuin kontalaria, 14:00etan. Señeak Bizkaia, 16:30ean. Eneko Martinez magoa, 17:00etan. Musika Banda, 18:30ean. Eneko Martinez magoa, 19:00etan. Olaia Inziarte, 20:30ean. Jauregibarrian.

## DOMEKA 28

- **DURANGO Sanpedroak** Talo tailerra Irrikazuren eskutik, 11:00etan. Herri kirolak: Nerea Arruti, Ioritz Gisasola, Urdax Magunazelaia eta Jon Gisasola, 12:30ean. Kanpai jotzea, 20:00etan. Tabiran.
- **DURANGO 'Durango Kantari'** Egundo taldeak girotua. Udaletxeko plazan, 12:30ean.
- **IURRETA Bermeora bizikleta irteera** Txirindulari elkarte. Iurretan, 08:00etan.

- **ZALDIBAR Argazki Rallya** Ilargi argazkilaritza taldeak antolatuta. Izena ematea, liburutegi zaharrea, 08:30etik 09:30era. Argazkien aurkezpena, 13:30etik 14:30era.
- **ZALDIBAR Sanpedroak** Ardoa eta galletak, San Pedro ermitan, 13:00etan. Euskal Dantzak, 13:30etan. Txirikil joko tradizionala, 14:00etan. Bizkaiko Bolo Txapelketa, 17:00etan. Asto probak, 18:00etan. Errifaren zozketa, 20:00etan. Azken traka, 20:30ean. Eitzagan.
- **ZORNOTZA Sanpedroak** Ehiza txakurrak, 09:00etan. Jolasak, 12:00etan. Sukalki txapelketa, 14:00etan. Briska txapelketa hirukoteka, 17:00etan. Tute txapelketa, 19:00etan. Boroan.

## ASTELEHENA 29

- **DURANGO Sanpedroak** Txistulariak, 09:00etan. Oier Jurado magoaren *Delivery* ikuskizuna (euria bada, San Agustin kulturgunean), 18:00etan. Meza, 19:00etan. Bertsolariak: Gorka

Pagonabarraga, Nerea Ibarzabal, Gorka Lazkano, Irune Basagoiti (Gai-jartzailea: Ander Elorriaga), 19:00etan. Akustikovers, 21:00etan. Tabiran.

- **ZALDIBAR Sanpedroak** Nagusientzako bazkaria Eitzako Auzo Etxean, 14:30ean.
- **ZORNOTZA Sanpedroak** Meza Paula Aurrekoetxearen eta Antonio Apraizen omenez, 12:00etan. Musika banda, 12:30ean. Briska txapelketa bikoteka, 17:30ean. Boroan.

## MARTITZENA 30

- **ZORNOTZA Sanpedroak** Meza auzoko hildakoen eta bazkideen omenez, 12:00etan. Trikitilariak, 12:30ean. Igel txapelketa, 13:30ean. Auzokoen bazkaria, 14:30ean. Boroan.

## EGUENA 2

- **ABADIÑO Maria Blanco eta Manex Astigarraga.** Bakarrizketa. Gaztetxean, 19:30ean.
- **DURANGO 'Oteizarekin solasean'** Beñat Achiary eta Alaitz Muro. Benita Uribarrena parkean (euriaz Arte eta Historia Museoa), 18:00etan.

## ZINEMA

## ABADIÑO (AIRE ZABALEAN)

TRAÑA PLAZAN

**Dragoi-jagolea**  
Barikua 26: 22:00.

## DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

**Supergirl**  
Barikua 26: 18:00, 20:30.  
Zapatua 27: 16:30, 19:00, 21:30.  
Domeka 28: 16:45, 19:30.  
Astelena 29: 17:30, 20:15.  
Martitzena 30: 17:30, 20:15.  
Eguaztena 1: 19:00.

**Obsession**  
Barikua 26: 18:00, 20:30.  
Zapatua 27: 16:30, 19:00, 21:30.  
Domeka 28: 16:45, 19:30.  
Astelena 29: 17:30, 20:15.  
Martitzena 30: 17:30, 20:15.  
Eguaztena 1: 19:00.

**Los últimos días de María Antonieta**  
Barikua 26: 20:30.  
Zapatua 27: 19:00, 21:30.  
Domeka 28: 19:30.  
Astelena 29: 20:15.  
Martitzena 30: 20:15.  
Eguaztena 1: 19:00.

**Toy Story 5 (3D)**  
Barikua 26: 18:30.  
Zapatua 27: 17:00.  
Domeka 28: 17:15.  
Astelena 29: 18:00.  
Martitzena 30: 18:00.

## ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

**El día de la revelación**  
Zapatua 27: 20:00.  
Domeka 28: 20:00.  
**Gurenagi familiaren errezetak**  
Zapatua 27: 17:00.  
Domeka 28: 17:00.

## BERRIZKO JAIAK

## EKAINAK 26

- **19:00** Pregoia eta txupinazoa, Miren Amuriza Plazagaz. *Udaletxean.*
- **ONDOREN**, jaietako kartel lehiaketako sari banaketa. *Udaletxean.*
- **ONDOREN**, urtero legez, sardina-jana.
- **19:30** Txosnen irekiera eta kontratxupinazoa. *Txosnagunean.*
- **20:00** Donien Atxa eta Dantzari Dantzako entsegua. *Elizondo plazan.*
- **21:30** Erromeria. *Elizondo plazan.*
- *Luhartz taldea*
- **22:30** Kontzertua:  
• *Reder*  
• *DJ La Fulana*  
• *DJ Alaine*

## EKAINAK 27

- **10:00** Kuadrillen bazkarirako zozketa. *Elizondo plazan.*
- **14:00** Paella lehiaketa. *Udaletxeko lorategian.*
- **18:00** Mozorroren jaitsiera.
- **18:30** Diskofesta: Oihan Vega. Haurrentzat saio berezia. *Elizondo plazan.*
- **19:00** Herriko Igel Txapelketa. Izen ematea: 18:30-19:00.
- **22:00** Diskofesta: Oihan Vega. *Elizondo plazan*
- **ONDOREN**, DJ Maria Blessive
- **22:30** Erromeria *txosnagunean.*
- *Aittu taldea.*
- **ONDOREN:**  
• *DJ Kuku eta Kene + DJ Amama.*

## EKAINAK 28

- **11:00 - 14:30** Artisan azoka Berrizturen eskutik. *Udaletxeko lorategian.*
- **11:00** Umeentzako herri kirolak. *Elizondo plazan.*
- **12:00** Herri kirolak "txapelketa ofiziala". *Elizondo plazan.*
- **14:00** XIV. Jose Ramon Korpion Memoriala bakailaoa pil-pilean lehiaketa. *Udaletxeko lorategian.*
- **17:00** Esna Gazte. Gazte eta familientzako ikuskizuna. Dantza, jokoak eta sorpresak. *Elizondo plazan*
- **19:00** Bertso saioa: Kelmene Abaitu, Araitz Katarain eta Irune Basagoiti. *Txosnagunean.*
- **22:00** Kontzertua. *Elizondo plazan*  
• *Jonkass.*

## EKAINAK 29

- **12:00** Meza nagusia. Ondoren, Dantzari Dantza.
- **17:00** Tiragoma txapelketa. *Udaletxeko lorategian.*
- **18:00** Mus txapelketa/ patxanga. *Txosnagunean.*
- **20:00** Dantzari Dantza.
- **22:00** IOI HAATIK dantza taldearen dantza ikuskizuna. *Eskolako patioan.*
- **00:00** Karaokea *Txosnagunean.*

## EKAINAK 30

- **12:30 - 14:00 / 16:00 - 19:00** Ur parkea kiroldegiko aparkalekuan. Euria eginez gero, kiroldegian.
- **17:00** Ate irekien jardunaldia: gimnastika erritmikoa. *Elizondo plazan.*
- **19:00** Antzerkia "B.O.B.A.S". *Udaletxeko lorategian.*

## UZTAILAK 1

- **11:00 - 14:00** Jokai-Larun euskal mitologian inspiratutako jolasak. *Udaletxeko lorategian.*
- **14:00** Bazkaria *Txosnagunean.* Ondoren, bingo musikatua.
- **17:00** Mistoen eta mutilen binakako frontenis txapelketako finalak. *Olakueta frontoian.*
- **18:30** Matraka elektrotxaranga Urriaga plazatik hasita.
- **19:00** Klowna eta magia 'Gota' Txema Muñoz. *Eskolako goiko patioan.*
- **22:00** Erromeria Errota. *Elizondo plazan.*
- **22:30** Kontzertuak.  
• *Sua*  
• *DJ Marrazo*  
• *DJ Zelaiets*

## UZTAILAK 2

- **12:00** Meza nagusia. Ondoren, Dantzari Dantza.
- **14:00** Jubilatuen bazkaria. Bazkalostean, musika. *Kiroldegian.*
- **20:00** Dantzari Dantza. *Elizondo plazan.*
- **20:30** Tortilla lehiaketa. *Udaletxeko lorategian.*
- **23:00** Deabruak Gara. Lekittoko Deabruak. Su eta piroteknia ikuskizuna. *Kiroldegitik udaletxeko lorategira.*



**ATXONDO** Herri afaria.  
Apatako frontoian, ekainaren 26an, 21:00etan.

## APATAKO JAIK

### EKAINAK 26

- **18:30** Aurpegi margotzea plazan.
- Pelma&Luis herriko aurrean.
- **21:00** Herri afaria frontoian. Mahai-zapia, ogia eta kafea jai batzordeak ipiniko ditu.
- **23:00** Zutik erromeria plazan.
- **01:00** DJ Kuku plazan.
- **02:00** DJ Igor Martinez Gaztetxean.
- **06:00** Afterra Gaztetxean.

### EKAINAK 27

- **12:00** Goitibeherak Cemosako aldatsean.
- **13:00** Igel txapelketa plazan.
- **14:30** Kuadrillen paellak plazan.
- **17:00** Kuadrillen arteko jolasak plazan.
- Mus txapelketa tabernetan.
- **18:30** Joseto Ta Alayak elektrotzaranga plazatik hasita.

- **20:30** Kontzertuak Gaztetxean: Gorka Basoa eta Oier eta Aratz.
- **23:00** Kontzertuak plazan: Zilibito Records eta Marte Lasarte.
- **02:00** Gaztetxea zabalik.

### EKAINAK 28

- **11:00** Azoka plazan.
- **12:00** Euskal dantzak frontoian.
- **16:30** Pilota partiduak frontoian: umeen finala, goxua 2. mailako finala, goxua 1. mailako finala eta afizionatuen partidua.
- **20:00** Antzerkia Barsanti konpainiaren 'Kale gorrian' ikuskizuna.
- **21:00** Kontzertuak Gaztetxean: Zartada, Eztanda eta Estutu.

### EKAINAK 29

- **12:00** Jubilatuen luntxa soziedadean.
- **18:30** Txopoa botatzea plazan. Ondoren, txokolatea denentzat.

### GUARDIAKO BOTIKAK

#### EKAINAK 26, BARIKUA

09:00-09:00  
**Campillo**, Montevideo etorb. 24 - Durango  
**Goria**, Sabino Arana 6 - Zornotza  
09:00-22:00  
**Iruarrizaga**, San Miguel 15 - Zornotza  
**Sarasketa**, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza  
**Sanchez**, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

#### EKAINAK 27, ZAPATUA

09:00-09:00  
**Mugica**, Andra Maria 9 - Durango  
**Melero**, San Pedro 31 - Zornotza  
09:00-22:00  
**Sanchez**, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño  
**Sarasketa**, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

#### EKAINAK 28, DOMEKA

09:00-09:00  
**Etxebarria**, Montevideo etorb. 2. - Durango  
09:00-22:00  
**Sarasketa**, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza  
22:00-09:00  
**Melero**, San Pedro 31 - Zornotza

#### EKAINAK 29, ASTELEHENA

09:00-09:00  
**Bazan**, Uribarri 5 - Durango  
**Melero**, San Pedro 31 - Zornotza  
09:00-22:00  
**Sarasketa**, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza  
**Iruarrizaga**, San Miguel 15 - Zornotza  
**Sanchez**, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

#### EKAINAK 30, MARTITZENA

09:00-09:00  
**Sarria**, Sasikoa 17 - Durango  
**Melero**, San Pedro 31 - Zornotza  
09:00-22:00  
**Sarasketa**, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza  
**Iruarrizaga**, San Miguel 15 - Zornotza  
**Sanchez**, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

#### UZTAILAK 1, EGUAZTENA

09:00-09:00  
**Sagastizabal**, Askatasun etorb. 19 - Durango  
**Melero**, San Pedro 31 - Zornotza  
09:00-22:00  
**Sarasketa**, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

#### UZTAILAK 2, EGUENA

09:00-09:00  
**Mugica**, Andra Maria 9 - Durango  
**Melero**, San Pedro 31 - Zornotza  
09:00-22:00  
**Sarasketa**, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

### LEHIAKETA



### ZORION AGURRAK

## Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta [Anboto.org/zorionagurra](http://Anboto.org/zorionagurra) helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaitetz Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.



MALLABIA  
**Aunitz**  
Ekainaren 19an, 6 urte. Zorionak, Aunitz, zure 6. urtegunean. Mosu handi-handi bat etxekoan partez. Asko maite zaitugu.

## GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com)  
☎ 661 401 400  
f Gozatu Gozotegia  
📷 gozatugozotegia



Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean gozatu gozotegiko **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

# UDAKO ORDUTEGIA

## Irailaren 11rarte

🕒 08:30-13:30

## Eraman udako maileguak irailaren 14rarte!

## Abuztuak 3-21 itxita

### BERRIZKO KULTUR EKITALDIAK

UZTAILA

2

OSTEGUNA

**Antzerkia: DEABRUAK GARA - Lekittoko deabruak**

23:00 Kiroldegitiki udaletxeko lorategira

9

OSTEGUNA

**Zirkoa: TAVOLE - Zirko Txosko**

17:00 Olakueta Plazan

16

OSTEGUNA

**Zirkoa: ARDATZAK - Zirkozaurre**

17:00 Eskolako patioan

Joseba Derteano ZORNOTZA

Jon Morcillo Conesa (Zornotza, 1998) neguko merkatuan heldu zen Almeriara. Albaceten nekez ikusten zuen helburuak askoz ere gertuago zirudien talde andaluziarrean: Lehen Mailara itzultzea, bere sasoiaren Athleticegaz bizi izan zuen mailara. Baina hatz puntekin ikututako lorpenak ihes egin zien azken unean. Finalean, Malagatik emaitza onagaz (0-0) bueltatu ziren arren, etxean ezin izan zuten kanporaketa errematatu (1-2). Kolpea oraindino guztiz gairatuta ez badu ere, hegaleko jokalaria zornotzarrak baikor begiratzen dio etorkizunari.

**Zer falta izan zaio taldeari helburua lortzeko?**

Emozioak hobeto kudeatzea, beharbada. Denboraldian zehar, serio ipintzen denean eta barruan duen futbola ateratzeko kapaz denean, taldeak erakutsi du ez dagoela geratuko duenik. Urte osoan bigarren edo hirugarren postuan mantendu gara. Zuzeneko igoerak jardunaldi biren faltan ihes egin zigun, baina konfiantzaz geunden igoera faserako. Finalean, Malagako joanekoan emaitza ona lortu genuen, eta bueltakoan gure zaleen aurrean igoerak ihes egitea gogorra izan da. Lasaitasun puntu hori falta izan zaigu.

**Ez igotzea kolpe gogorra izan da?**

Bai. Igotzeko ilusio handia genuen, eta, egia esanda, kolpe gogorra izan zen; jokalariontzat, klubarentzat, hiriarentzat... Eta arlo pertsonalean niretzat ere bai, jakina. Oraindino ez dut guztiz barneratu. Azken batean, nire egoerari buelta eman eta Lehenengo Mailara bueltatzeko ilusioagaz batu nintzen taldera. Albaceten ez nuen sentitzen hori lortu nezakeenik, baina Almerian bai, gertatu zitekeela sentitzen nuen, kalitate handiko jokalaria zeudelako.

Hainbat urte eman nuen Athleticen, eta horregaz konparatzea oso gaxa da. Amorebieta eta Albacete klubak, adibidez, ez dira egitura horretara hurreratzen, normala den moduan. Almeria, duen ahalmen ekonomikoagaitik, gehiago hurreratzen zaio: azpiegiturak, bidaiak... Jokalari profesional sentitzen zara taldean, nik neuk behintzat sentitu dut. Gainera, mailaz igotzeko aukeragaz. Baina, tira, gauzak ez dira gura genuen moduan irten eta orain berriro jaikitzea eta hutsetik hastea tokatzen da.

FUTBOLA

## "Kolpe gogorra izan da, baina Almeriagaz berriro igotzeko borrokatzea da nire ilusioa"

JON MORCILLO CONESA FUTBOLARIA

Ezin izan du Lehenengo Mailarako igoera lortu Almeria taldeagaz. Hala ere, jokalaria zornotzarra kolpetik errekuperatu eta datorren urtean berriro saiatzeko prest dago



Beste lau urterako kontratua du Almeriagaz.

**"Porrotek indartsuago egin naute; gerora baliagarri izan zaidan esperientzia eman didate"**

**Gustura zaude aurtengo denboraldian erakutsitako errendimendueguz?**

Bai. Albaceten bost gol sartu ditut denboraldi honetan, eta Almerian beste hiru. Hegalean jokatzen duen jokalaria batentzat zenbaki onak direla uste dut. Asistentziak ere banatu ditut.

**"Nire egoerari buelta eman eta Lehen Mailara bueltatzeko ilusioagaz batu nintzen Almeriara"**

Bide honetan jarraitu gura dut. Erregularitasun apur bat gehiagoko falta zait, beharbada. Baina, bestela, gustura nago urteagaz. **2021-2022 denboraldian futbolaren alderdi goxoa probatu zenuen Valladolid klubagaz Lehenengo Mailarako igoera lortuta. Aurten txanponaren beste aldea egokitu zaizu. Porrotek zer ikasgai atera daiteke?**

Futbolari baten ibilbidea horrelakoa da. Normalean, garaipenak baino porrot gehiago daude. Ni, pertsonalki, porrotek indartsuago egin naute, gerora oso baliagarri izan zaizkidan esperientzia eta perspektiba eman dizkirate. Valladolidagaz Lehenengo Mailara igo nintzen edo Athleticagaz Superkopa irabazi nuenean dena koloretsu eta polit ikusten nuen, baina une horietan lorpenak ez dituzu behar den moduan baloratzen. Porrotek, ostera, sasoi hobeetako lorpenak gehiago baloratzen erakusten dizute. **Denboraldi honetarako eta beste lau urterako kontratua sinatu zenuen Almeria taldeagaz. Bertan jarraitzeko nahia duzu ala egoera birtentsatzen ari zara?**

Oso pozik nago Almerian. Pozik nago kontratuagaz eta hiriagaz. Bizi kalitate ona dut hemen. Almeriagaz berriro mailaz igotzeko borrokatzea da nire ilusioa. Argi dago klub bakoitzak edo entrenatzaile bakoitzak bere ideiak dituela. Beraz, ez dakit zer gertatuko zen, baina nire nahia hemen jarraitzea da, hemen bakarrik dut burua.

**27 urteagaz hainbat taldetan aritu zara: Athleticen, Valladoliden, Amorebietan, Albaceten, eta orain Almerian. Eskertuko zenuke egonkortasun apur bat?**

Futboleko batzuetan ez dakizu egonkortasuna noiz helduko zen. Faktore asko sartzen da jokoan. Mundu guztiari gustatzen zaio estabilitatea, baina batzuetan futbolariek ez dizu uzten. Baina, tira, urte batzuetan hemen jarraitzea eta mailaz igotzea gustatuko litzaidake.

**Zelakoa da futbol giroa Almerian?**

Modu intentsoan bizi dute futbola. Taldeagaz oso konprometituta dagoen hiria da, alkatearengandik hasita. Zaleak taldearen gainean egon dira denboraldi osoan. Egia esanda, futbola Andalusia osoan bizi da modu intentsoan. Denboraldian zehar derbi asko dago; gaur Cadizen aurka, hurrengoan Cordobaren aurka... Finala ere Andaluziako talde biren artekoa izan zen.

## MENDI LASTERKETAK

## Aranburu eta Estebañez Mari Kopako liderrak

J.D. BERRIZ

Joan zen zapatuan, Durangaldeko Koparen barruko bigarren mendi lasterketa egin zuten: Berrizko Amaraune. Bero handiak markatutako jardunaldian, Irazu Aranburu mallabitarrak eta Lara Estebañez legazpiarrak irabazi zuten lasterketa luzea. Garaipen honi eskerrak, biak lasterketa luzeen Mari Kopako lider jarri dira. Lasterketa laburragoan, Victor Bernedo eta Zutoia Odriozola elorriarrek irabazi zuten. Odriozolak Kopako lasterketa labur biak irabazi ditu, Mallabiko 7 Pago eta Amaraune, eta Sugar Kopako lider sendoa da. Gizonetan Aketza Fernandez dago lider: Berrizen podiumeko hirugarren koskara igo zen, eta Mallabiko proba bosgarren amaitu zuen. Kopako hurrengo hitzordua Zaldibarko Zaldu Trail da, uztailaren 11n.



Lasterketaren hasierako irudi bat.

## DEIALDIA

## Zaldia Kirol Elkarteko arduradun batzuek kargua utziko dute eta erreleboa behar dute

Bazkideak zapatu goizean egingo den batzar nagusira joatera deitu dute

J.D. ZALDIBAR

Zaldibar Kirol Elkarteak urteko batzar orokorra egingo du zapatuan, 11:00etan, herriko liburutegi zaharrean. Batzarraren gai nagusietako bat zuzendaritzako hiru arduradunen dimisioa izango da. Arkaitz Padilla presidentea, Arsenio Juarrero diruzainak eta Auritz Maortua idazkariak kargua utziko dutela iragarri dute.

Hirurek 11 urte daramatzate zuzendaritza batzordeko kide izaten. Padillak eta Juarrerok oraindino urte gehiago egin dituzte beste etapa batzuetan. Orain "etapa baten amaierara" heldu dira eta erreleboa hartzeko sasoi dela uste dute. "Orain 11 urte hartu genituen ardurak eta hurrezkerok lanean aritu gara elkartean. Neke puntu batera heldu gara. Orain, beste batzuek ideia berriak eta indar berria ekartzeko garaia dela uste dugu", azaldu du Maortuak.

Oraingoz ez da zuzendaritza berria osatzeko boluntariorik agertu. Azken hileetan hainbat ahalegin egin dute baten bat aurkitzeko, baina ez dute baiezkorik jaso. Horregaitik, zapatuko batzarrerara joateko deia egin diete bazkideei.



Zaldia Kirol Elkarteko ezkutua.

"Azken urteetan, dozena bat edo hamabost bat bazkide baino ez dira etorri batzarretara, eta klubak 1.000 bazkide baino gehiago ditu. Horregaitik, batzarrerara batzera deitzen diegu bazkideei. Garrantzitsua da jendeak egoera zuzenean ezagutzea", adierazi du Maortuak. Ildo horretatik, bazkideek egoera bertatik bertara ezagutzea da biharko bileraren helburua, eta boluntarioak bilatzea zuzendaritza berria osatzeko.

Maortuak segurtatu du prest daudela erreleboa hartzen du-

ten horiei ahal duten gauza guztietan laguntzeko, trantsizioa erraza izan dadin: "Sartzen direnei gure laguntza eskainiko diegu, gure telefonoa beti egongo da prest laguntzeko".

### Lau talderen batura

Momentu honetan lau atalek osatzen dute Zaldibar Kirol Elkarteak: futbol, saskibaloia, pilota eta mendi taldeek. Atal bakoitzak bina ordezkari ditu zuzendaritzan, eta horiei presidentea, diruzaina eta idazkaria gehitu behar zaizkie. Beraz, hamaika lagunek osatzen dute kirol elkarteko zuzendaritza batzordea. Baina kargua utziko duten hirurak garrantzitsuak dira eguneroko kudeaketarako. "Presidenterik, diruzainik eta idazkaririk ez badago, ezingo da eguneroko laneko hainbat tramite eta kudeaketa egin. Horregaitik da hain garrantzitsua erreleboa aurkitzea", azaldu du.

Zaldia Kirol Elkartearen egoera ekonomikoa "oso ona" dela esan du Maortuak. "Lau ataletan dabilzan boluntarioen lan handiari eskerrak gaude horrela", gaineratu du.

## ATLETISMOA

## Bidezabalek eta DKTk atletismoko Lehen Mailan jarraituko dute

J.D. DURANGO

Bidezabaleko emakumeek eta Durango Kirol Taldeko gizonen atletismoko Lehenengo Mailan jarraituko dute datorren denboraldian. Biek mailari eustea lortu dute. Ohorezko Maila baino ez dute gainetik.

Bidezabalek 30 urtez jarraituko du maila honetan. "Estatu osoan oso klub gutxiren esku dagoen lorpena da", nabarmendu dute klubeko ordezkariak. Horrez gainera, estatuko klubuen ligetan sailkapenik onena lortu duen Bizkaiko kluba izan da.

Durangoko atletismo pistan lehiatutako azken jardunaldian baturiko puntuei eskerrak, Durango Kirol Taldea seigarren urtez jarraian arituko da Lehen Mailan. DKTko atletek uretan amaitu zuten jardunaldia, bero itogarriari aurre egiteko ez ezik baita lorpena ospatzeko ere.



DKTko atletak, ospatzen. L.GORRIÑO

## JOKALDIA



OIHANA AZKORBEITIA URIZAR  
MENDI LASTERKETAK

## Atxarterapia - Askatasuna maite dugulako

Eskalatzaile biren irudia, eta, irudiaren osagarri legez, 'Atxarterapia-Askatasuna maite dugulako' esaldia. Ederrak biak, marrazkia eta mezua. Irudia Atxarteko liburutegiko apal batean dago, markotxo batean sartuta, liburu artean.

Bai, Atxarten liburutegi bat dago, liburutegi askea. Hau irakurri daiteke beste apal batean itsatsita dagoen mezuan: 'Egitasmo honen helburua Atxarteko bailaran danontzako liburutegi bat sortzea da. Garbi mantendu, zaindu eta errespetatu'. Ez dakit nori bururatu zaion Atxarten liburutegia zabaltzea, baina ideia mundiala da. *Chapeau*. Eskerrik asko.

Ez du zerikusirik Alejandriako antzinako liburutegi erraldoiagaz, ezta *Arrosaren izena* liburu eta filmeko liburutegi labirintikoagaz ere, baina behar ere ez. Atxartekoa liburutegi txikia da, kuriozkoa, polita. Han

ez da inor galduko, ez izan horren beldurrik. Galtzekotan, liburuteko orrialdeek gordetzen dituzten istorio, pasarte eta zirrikituetan galduko gara. Gustura galdu ere. Sartzeko eta irteteko ere arazorik ez, aterik ere ez dago eta. Denontzat dago zabalik, gau eta egun.

Hauek bertan dauden liburu batzuk: *Moio* (Kattalin Miner), *Lekuak* (Bernardo Atxaga), *Euskal Harriak* (Joseba Azkarraga), *Ipuin izugarriak* (Harkaitz Cano, Begoña Bilbao, Txiliku...), *Ipuin erotikoak* (Jasone Osoro, Itxaro Borda...). Eta On Kixote Mantxakoaren eta Zalacainen abenturak ere aurkituko ditugu bertan. Mendiari eta naturari buruzko aldizkariak ere badaude: *Viajes*, *Pirineos*, *Pyrenaica*... Eta, zelan ez, hurrentzako eta gazteentzako txokoa ere bai: *Laino txiki, egizu negar poliki* (Monika Arratibel eta Xabi Etxaniz), *Maria eta aterkia* (Mariasun Landa), *Pirata Eskola*

(Steve Stevenson)... Aukera zabala eta ederra. Leku ikusgarri batean, gainera, Urkiolako Parke Naturalaren sarreran, Labargorriko horma tenteen altzoan.

Liburuak aterpetzen dituen 'txabola' beste kontu batzuetarako erabiltzen zen kanterak ustiatzen ziren sasoiak; kanterako harriz beteriko kamioiak pisatzeko eta baskula kontrolatzeko arduradunaren lekua zen. Gaur egun, zorionez, Atxarten ez da dinamita hotsik entzuten, ez da mendia jaten, ez dabil kamioirik. Atxarten bizikletan ibiltzen gara, korrika egiten dugu, eskalatu egiten dugu, arnasa hartzen dugu; eta hemendik aurrera, irakurri ere bai. Aldea makala! Lagun askorentzat, Atxarterapia. Liburutegia abiapuntu ederra da Atxarte osatzen hasteko. Zaindu eta maita dezagun ingurua, modu xumean, handitasunik barik, natura bizirik behar dugulako, askatasuna maite dugulako.

## Zaintza



MAITE EUBA  
AREITIOAURTENA

Berbak erabiltzeko sortu ditugu, esanahiz betetzeko, komunikatzeko. Erabileraren poderioz, garatu, egokitu eta sarritan esanahi berria hartzen dute. Ez beti, baina. Bidean agortu, akitzen direnak ere badaude, identitate barik, hutsik geratzen direnak. Zaintza da nire ustez zentrifugatu dugun berbetako bat. On beharrez; ordu, leku eta aho guztietan noiz edo noiz erabili dugu Zaintza. 'Zaintza erdigunean jarri behar dugu' leloa makina bat hitzalditan entzun dugu. Ondo. Ondo baino hobeto dago hausnarketa. Gizarteak bere osotasunean arazo honi irtenbide globala aurkitu beharko dio/diogu denon artean gero eta jende nagusi dependiente gehiago gara eta. Ados. Horretarako arduradun politikoez izango dute zer egin. Baina instituzioen soluzioek ez dute konponduko, beteko, zaintzak eskatzen duen guztia. Ez nik ulertzen dudana eran behintzat.

Bizitzan zehar denoi egokituko zaigu zaintzea edota zainduak izatea. Zaintza ez dut ulertzen gaixoa zaintzea soilik. Umeak zaintzea, gurasoak, lagunak, bikotekidea, lankideak, auzoa. Zaintza borondatezko ekintza da, mimoz egiten dena, dirutan kobratuko ez dena, ordaindu ezin dena. Oso beharrezkoa. Hau dena zuk, nik, guk...komunitateak egingo du egitekotan.

Denok izango gara gutxi, asko, rol batekoak edo bestekoak. Aukeran niri zaintzea gustatzen zait, baina pozik hartzen ditut nire ingurukoak ni zaintzen nautenean. Ondo zainduta nago.

## "Beti gura izan dut atzerrian ikasi, kultura desberdinak ezagutu"

AINHOA COLINO BELLA ATLETA

**Aitziber Basauri** BERRIZ

Hego Carolinako AIKEN unibertsitatean (AEB) Psikologia eta Ariketa eta Kirolaren Zientziak gradu bikoitza egin ondoren, Ainhoa Colinok (Berriz, 2004) astebeite eskas egin zuen Berrizen Greziara joan aurretik Zaporeak elkarreagaz lan egitera. Uztailean Herbeheretara joango da, Groningen-era. Han, ikerkuntza oinarritutako Kirol Zientzien masterra hasiko du.

**Ez duzu denbora askorik egingo herrian.**

Ez naiz geldirik egotekoa, egia esanda.

**2022an Hego Carolinara joan zien, Columbia College-ra lehenengo.**

Beti gura izan dut atzerrian ikasi, kultura desberdinak ezagutu. Zortzi urte nituenetik egin dut atletismoa: krosa, martxa eta pista. Beka bat lortu nuen AEBetan kirola eta ikasketak uztartzeko. Konfort-zonatik irten eta toki desberdin bat ezagutzeko aukera ikusi nuen. Gainera, erraztasun handia ematen dute kirolean maila handian aritzeko. **Euskadiko txapeldun zinela joan zinen, krosa egiteko asmoagaz.**

Bai, oso gogotsu joan nintzen Columbia Collegera, jakinda maila pertsonalean eta atleta legez asko haziko nintzela. Martxa talde bat zegoen eta munduko txapelketetan ibilitako entrenatzaile bat. Era berean, ezagutzen ez nuen toki batera nindoan, kultura oso desberdinagaz, eta inor ezagutu barik. **Zer egin zitzaizun gaxena?**



Ainhoa Colino, Hego Carolinako (AEB) USC AIKEN unibertsitatearen aurrean.

Kirol arloan entrenamenduak. AEBetan dena dago zentratuta lehiaketan, denboretan, marketan. Hemen, gozamenera dago bideratuta gehiago. Astean 4-5 egun entrenatzera nengoen ohituta, talde txikiagoan, askatasun gehiagorekin. Presio handiagoa izan dut han. Kilometro gehiago egiten genituen eta ez nengoen horretara ohituta. Nahiko lesionatu naiz, eta ordaindu egin dut. **Nola ohitu zara AEBetako gizartera?** Kultura eta pentsakera desberdina da eta denerako behar da kotxea. Janaria ere desberdina!

### Motzean

**Pista ala krosa?**

Pista.

**Atleta izateko behar da...**

Konstantzia izatea.

**Egiteko duzun ametsa?**

Triatloi bat.

**Entrenatzeko momenturik onena?**

Goizean goiz.

**Lasterketa bat?**

Behobia-Donostia

Gatz da ohitzea, zer esanik ez Euskal Herritik joanda! Zorionez, azken urte bietan sukaldia izan dut etxean, kozinatzenko. Berrizera nentorrenetan, Gabonetan edo udan, maleta janariz beterik bueltatzen nintzen. Une gogorak bizi arren, esperientzia ona izan dut. Ekipoa familia izan dut, eta egokituz joan naiz.

**AEBetako unibertsitate-sistema onenatarikoa ei da kirola eta ikasketak uztartzeko. Gainera, Ikasle Bikainaren saria eman zituzten.**

Ikasketak oso bideratuta daude ezagutza praktikora. Kasu konkretu bat hartu, eta hori zelan bideratu aztertu eta hausnartu behar genuen. Eta laborategiko praktika asko egiten genuen. Ikerketan aritzeko aukera ere izan dut; hainbat proiektu garatu dut eta AEBetako hainbat tokitan aurkeztu. Erraztasun handia eman didate guzti hori atletismoagaz uztartzeko.

**Izan duzu lehiatzeko aukerarik?**

Entrenamenduen kargak, egindako kilometroek... asko eragin didate. Lehenengo urtean asko kostatu zitzaidan egokitzea eta askotan lesionatu nintzen. Asko exijitzen diot neure buruari, eta presioak ez zidan mesede egin. Azken urte biak AIKEN-en egin ditut eta aldaketa apur bat kaotikoa izan zen. Kirolari legez arantza hori geratu zait eta konfiantza hartu dudana arren dena ez da joan espero nuen moduan. **Zer ekarpen egin dizu esperientziak?** Bizitza pertsonala eta kirola bereizten lagundu dit, eta emailtzak lortzeko egindakoagaz disfrutatzeak duen garrantziaz konturatzen. Diziiplina behar da, dena ematea, eta gozatu puntu hori ere bai. Gorputza zaintzen ikasi dut, lesioetatik ere bai. **Utziko diozu inoiz korrika egiteari?** Ez dakit! Gorputzak uzten ez didanean, igual.



PEFC ziurtagiria  
Produktu hau  
kontrolatutako  
iturrietako materialez  
egina dago, birziklatua  
da eta Baso Kudeaketa  
Irakurkaren  
ziurtagiria dauka  
www.pefc.es



## SAN ROKE BARRIA II

### Eraikin berria bizi-kalitate berarekin Durangon.

2 eta 3 logelako 47 etxebizitza berri, San Roke Barria II. Sukaldia guztiz hornitua eta armairuak gela bakoitzean.



GARAJEA



TRASTELEKUA



GIMNASIOA



RELAX GUNEA

946 46 20 41 [sukia.com](http://sukia.com)

SALMENTA BULEGOA: Astxiki kalea, 1. Durango



Zure etxean zaudu. Estás en tu casa